

1.996

LEITZA 96

ABERIO DONEN REN FESTAK

18

ZENBAKIA



pestetako egitaraua


KAIKO HERRITARROK!

AURRERA, K.E-KO BAZKIDEEK



Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

LEITZAKO UDALAK



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Herritar eta bisitari guztiei

Hau irakurtzen duzueguzue. irakurtzen baduzue behintzat, festa giroan sarturik edo sartzeko prest aurkituko gara. Aurtengoak ere iritsi zaizkigu. Beste urtebete gure bizkarrera..., Norberaren bizitzan gauza asko dira epealdi honetan pasatzen eta bizitzen direnak, egin gabe gure gogoetan gelditzen direnak ere bai.

Udalari dagokionez zerbait ere aipatu beharko genuke baina inor ez aspertzearren inolako zerrendarik ez dugu osatuko. Ezin daiteke arrosa koloreaz urtebetekoa pintatu, ezta ilunaz ere, noski. Ongi edo nahi bezala ateratzen ez diren gauzek arrasto handigoa ezarri arren, gehiago animatzen gaituzten emaniko pausoak ere badira eta horietan oinarritu nahi eta behar dugu.

Iaz esaten genuen bezala, udalaren izenean hemetxe gaude hamaika (zinegotzien kopurua) gizon emakume mezu simple bezain zaila betetzeko asmoz; nahi duten herritarrekin bat eginez ahal dena lortu Herria eta leitzarren hobekuntzaren alde. Beti ez da asmatzen, zoritxarra baina errealitatea.

Giro honetan pesta zoriontsuak opa nahi dizkizuegu norberak bere buruari hau betetzeko behar den ardura eskatuz. Arrazoi ezberdinengatik eta bereauen nahiaren badi-ra pestetako giroaz gozatzerik ezin izanen dutenak baina hauek ere gogoan izanen ditugu noski.

Kanpotarrak etorriko dira, alde egin ere bai, gu hementxe gaude eta segitu beharko, halabeharrez, beraz geroari begiratuz ere **PESTAK ONGI PASA ETA PESTETAN ONGI IZAN.**

**GORA TIBURZIO DONEAREN FESTAK
FESTETAN ERE GORA LEITZA**

pestetako egitaraua

UZTAILEK 28, IGANDEA

ERREPARTOAREN EGUNE

- **Goizeko 9etan:** Herri guztian barrena pestetako egitarauen banaketa egingen da. Leitzako gaztek, trikitilari, txistulari eta «Jexuxen eta Tomasinen akordion paregabeen» laguntzez, etxez etxe ibiliko dire

Gogoan izan, dirue, kaxa giltzatue duenei bakarrik eman behar zaioala.

- **Atsaldeko 5etan:** Aurrerako dantzari ttikien saio dotore bat ikusteko auketa izanen dugu.
- **Atsaldeko 7,30etan, eta 11etatik aurrera:** Dantzaldie ETZAKIT taldekin.



pestetako egitaraua

ABUZTUAK 4, IGANDEA

UMEEN EGUNE

- **Goizeko 8etan:** Diana txistularikin.
- **Goizeko 10etan:** Zikliste gaztek beren saioa egingen dute herrian barrena.
- **Goizeko 10,30etan:** Meza nagusie.
- **Goizeko 12,30etan:** Frontonen umeentzako jokoak (soskor apustue, zaku-saltoa, aulki harrapaketa...)
- **Atsaldeko 4,30etan:** Txirrindularik arituko dire berriz ere.
- **Atsaldeko 8,30etan eta 11etatik aurrera:** IZOTZ taldekin dantzaldie.

OHARRA: Bezperan eta igandean; egun osoan zehar, «erdi aroko merkatua» ikusi ahalko dugu herriko plazan, eta bertan garai hartako ikuskizunetaz gozatzeko eta gauza asko erosteko aukera izanen da.



pestetako egitaraua

ABUZTUAK 10, LARUNBATA



PESTA BEZPERA

- **Eguerdiko 1,30etan:** Jubilatuen bazkarie.
- **Eguerdiko 2,30etan:** Herri bazkarie. Zenbait herritarrek hala eskatute erabaki da, herritarren arteko bazkarie antolatzea Plazan. Txartelak salgai egonen dira Torren eta Gaztañaganen. Eskaera hau egin duenek hala nahi baitzuen. Antolakuntzaren ardura Gestorak hartu du.
- **Atsaldeko 6etan:** Pestei hasiera emanez, ezkilek jotzea eta etxafuego botatzea.

Ondoren Plazaola aldizkarin azalen lehiaketan irabazle izan denari Herriko alkateak, oraindik ere Mikel jaunak, sarie emanen dio.

Gero, buruhaundi, txistulari, Incansables txaranga eta apuntatzen den guzikin kalejira herrin barrena.

- **Atsaldeko 7,30etan:** Dantzaldie URRATS talde eroarekin.
- **Gaueko 12etan:** Berriz ere aurreko eroak.





pestetako egitaraua

ABUZTUAK 11, IGANDEA

TIBURTZIO DONEAREN EGUNE

- **Goizeko 7,30etan:** Diana: –Ziztularik, beren buelta. –Gaiteroak, alde zaharren hasiko dire, Manuel Lasarte auzoan barrena, Huarte gotzaia kalera, eta handik Jose Deunaren Plazara ailegatzeko.
- **Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak plazan. OHARRA: Egun hontako xexenak, herriberakoak izanen dire. Hortaz kondiziotan ez daudenak, hau da, mozkorra, elbarrie, argitasun haundirik gabe, maitemindu berrie, famili burue, eta abarrek Jainkoaren izenen ez dittezela atera.
- **Goizeko 10etan:** Kadete mailako zikliste Laisterketa.
- **Goizeko 11,30etan:** Meza nagusie, dantzarik eta herriko korporazioak lagundurik.
- **Eguerdiko 12etan:** Aurrera K.E.ko ezpatadantzarik ikuskizun paregabea eskeiniko digute.
- **Eguerdiko 12,30etan:** Aurrera K.E.ko pilota eskolak antolatutako pilota partidua plazan.
- **Atsaldeko 5,30etan:** Xexenak eta rekortadorek (ibili nahi duenak, kontutan eduki dezala goizekoaz esandako guzie).
- **Atsaldeko 6,30etan:** Donibaneko erraldoeik gaiteroekin herrin barrena ibiliko dire.
- **Atsaldeko 7,30etan (8etarako hasiko delakoan) eta gabeko 12etan:** GAUBELA taldea.




«Hola dagoena ez
dedile xexenetan
atera».

pestetako egitaraua

ABUZTUAK 12, ASTELEHENA

PESTA BIGARRENA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
–Txistularik, betiko buelta. –Trikitilarik Patxi Arrazola eta Amazabal kaleak alaituk dittue.
- **Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak, oraingoan betikoak izanen die.
- **Goizeko 11etan:** Pilota partiduk plazan.
- **Ondoren bertsolarik:**
–Peña. –Lujanbio. –S. Lizaso. –Loidisaletxe.
- **Atsaldeko 5,30etan:** Xexenak plazan.
- **Atsaldeko 6,30etan:** Aurrerako dantzarik eta zurrumurruak zabaldu ba dire ere, ez «Ballet nacional»ak, beren saio ezin hobea eskeiniko digute.
- Ondoren Udaleko kide batek, langile, konzejala, edo auskalo zeinek, karameloak banatuko ditto, bertan dauden haurrentzako.
- **Atsaldeko 8etan, eta 12etan:** ETZAKIT taldea.



pestetako egitaraua

ABUZTUAK 13, ASTEARTEA

PESTA HIRUGARRENA

- **Goizeko 7,30etan:** Beti bezela Diana: –Txistularik aldatzeko asmorik ez, eta betiko buelta egin behar emen due.
–Trikitilarik alde zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzai kalea, eta Jose Deunaren plazan ibiliko dire.
- **Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak.
- **Goizeko 10etan:** Txirrindulari Jubenilek.
- **Goizeko 11etan:** Kalderete Txapelketa plazan. Kaldereteak nahita nahiez plazan bertan prestatu beharko die. Parte hartu nahi duenek beren sua eta osagaiak eraman beharko dittue.
- **Goizeko 12etan:** Harrijasotzailek.
–Leitzeko bi (zein ez dakigu seguro beño...) eta akaso kanpotarren bat ere bai.
- **Atsaldeko 5,30etan:** Xexenak berriz ere.
- Ondoren zaldi doma.
- **Atsaldeko 6,30etan** kale animazioa GOLOKA taldearekin. «Prakamotxak» izeneko ikuskizunarekin.
- **Atsaldeko 8etan eta 12etan,** Leitzeko pertsona ezagun batek hain maite dittun JOSELU ANAIK, taldearen emanaldie (Plazan ikusi nahi ginuke jo ta fuego dantzan aipatutako pertsona).



pestetako egitaraua

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA



PESTA LAUGARRENA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
–Txistularik betiko plegarikin, eta betiko jendekin.
–Trikitilarik: Patxi Arrazola eta Amazabal auzoko biztanlek esnaraziko dittue.
- **Goizeko 11etan:** Pilota partiduk plazan.
- **Goizeko 12,30etan:** Musika emanaldi plazan. INCANSABLEn eskutik.
- **Atsaldeko 5,30etan:** Xexenak, beti bezela ordu hontan.
- **Atsaldeko 6,30etan:** Naparrako jota kantatuk bixi bixi plazan.
- **Atsaldeko 8etan eta 12etan:** HARITZA taldea.



ABUZTUAK 15, OSTEGUNE



«Hok ere aurten
ezkondun ingurutxoa
dantzalzeko asmoa
emen due».

AMABIRGINE EGUNE



- **Goizeko 7,30etan:** Azken Diana (biharamonen gaupaseroren bat animatzen ez bada binipin)
-Txistularik: beti bezela
-Trikitarik Alde Zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia kalea eta Jose Deunaren Plazan ibiliko dire.
- **Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak.
- **Goizeko 9etan:** «Tiro al Plato» Baztarlan, egun osoan iraunen duna. (Eskertzekoa litzke mendie gehiegi ez zikintzea).
- **Goizeko 11,30etan:** Futbol partidue Larbandon.
- **Ordu beren:** Aizkolarik eta idi probak herriko plazan.
- **Atsaldeko 2,30etan:** Aurrerako bazkideen bazkarie, Labetxen bertan.
- **Atsaldeko 6etan:** Ezkondun entzierroa, eta xexenak (zilegi da ezkondurik ez dagona ere ateratzea. Total pestak bukatzera dizte eta nahiz ta ezkondurik ez egon etorkizune nehiko ilune heldu zau).
- **Atsaldeko 8etan, eta 12etan:** BASAKABI taldeak apari bikaine eskainiko digue... estoo, dantzaldie, dantzaldie.
- **Ingurutxoa ondoren «POBRE DE MI»** Labetxeko ataririk hasita, herrin zehar, toki beren bukatuz.

PROGRAMA DE FIESTAS PATRONALES 1990

DIA 28 DE JULIO, DOMINGO

REPARTO PROGRAMAS

9 de la mañana: Los jóvenes del pueblo acompañados por trikitilaris y txistularis, etc. andarán de casa en casa repartiendo el programa de fiestas. Recordar que el dinero se deberá entregar sólo a aquellos que vayan provistos de caja precintada.

5,30 de la tarde: Actuación del grupo de dantzaris txikis del Aurrerá.

A las 7,30 y 11: Actuación del grupo ETZAKIT.

DIA DE 4 AGOSTO, DOMINGO

DIA DEL NIÑO

8 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis.

10 de la mañana: Ciclistas.

10,30: Misa mayor.

12,30: Juegos para niños en el frontón Amazabal.

4,30 de la tarde: Ciclistas.

8,30 y 11 de la noche: Bailables a cargo del grupo IZOZTZ.

NOTA: La víspera y durante todo este día, se podrá disfrutar de un **MERCADO MEDIEVAL** en la Plaza, con espectáculos propios de la época, y diversos productos que se pondrán a la venta.

DIA 10 DE AGOSTO, SABADO

VISPERA DE FIESTAS

1,30 de la tarde: Comida de jubilados.

2,30: Comida popular.

A continuación entrega de premios del Plazaola. Y después pasacalles con cabezudos y charanga.
7,30 y 11: Bailables a cargo del increíble grupo URRATS.

DIA 11 DE AGOSTO, DOMINGO

DIA DE SAN TIBURCIO

7,30 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis y gaiteros.

9: Encierro y vaquillas de la ribera (ojo que no es broma).

10: Ciclistas cadetes.

10,30: Misa mayor acompañada de la Corporación Municipal y los ezpatadantzaris del Aurrerá.

12: Ezpatadantza.

12,30: Partidos de pelota organizados por la escuela de pelota del Aurrerá.

5,30 de la tarde: Vaquillas y recortadores.

6,30: Gigantes de San Juan.

7,30 y 11: Bailables con el grupo GAUBELA.

DIA 12 DE AGOSTO, LUNES

7,30 de la mañana: Diana con txistularis y acordeonistas.

9: Encierro y vaquillas.

11: Partidos de pelota en la Plaza. Después bertxolaris.

5,30 de la tarde: Vaquillas.

6,30: Dantzaris del Aurrerá.

7,30 y 12: Bailables a cargo del grupo ETZAKIT.

DIA 13 DE AGOSTO, MARTES

7,30 de la mañana: Diana con txistularis y trikitilaris.

9: Encierro y vaquillas.

10: Ciclistas categoría juvenil.

11: Concurso de Calderetes.

12: Arrijasotzailles.

5,30 de la tarde: Vaquillas.

A continuación DOMA.

6,30: Animación callejera a cargo del grupo GOLOKA.

A las 8 y 12 noche: Bailable a cargo del grupo JOSELU ANAIAI.

DIA 14 DE AGOSTO, MIERCOLES

7,30 de la mañana: Diana, txistularis y acordeonistas.

9: Encierro y vaquillas.

11: Pelota en la Plaza.

12,30: Concierto ofrecido por la banda INCANSABLES.

5,30 de la tarde: Vaquillas.

6,30: Jotas Navarras.

8 y 12 noche: Bailables a cargo del grupo HARITZA.

DIA 15 DE AGOSTO, JUEVES

DIA DE LA VIRGEN

7,30 de la mañana: Diana con txistularis.

9: Tiro al plato que se alista hasta el anochece.

9: Encierro y vaquillas.

11,30: Fútbol en el Larbanc.

A la misma hora: Aizkol Idi-probak en la Plaza.


A las 2,30 de la tarde: Comen los socios del Aurrerá, en las talaciones del Club.

6: Encierro de los casados continuación «Ingurutxo».

A las 8 y 12 de la noche: Bailables a cargo de la orquesta BASA-KABI.

Después del tradicional Ingurutxo, «POBRE DE MI».

pestetako egitaraua



Plazaola

PEDRO ZABALETA TRATANTE LEIZA (Navarra)	LASARTENEA COMERCIO Y BAR LEIZA (Navarra)	LA VASCONIA Banca y Crédito - Sucursal LEIZA - Navarra	Francisco Hernandorena Comercio - Navarra LEIZA	FARMACIA Y DROGUERIA JESUS GOIBUN LEIZA			
TOMAS ALDUNCIN "Michelaudi" TRATANTE LEIZA (Navarra)	PEUSTENEA 7.º Cielo - Bar	Juan Larraz Barbería y Comercio LEIZA (Navarra)	Francisco Zabaleta Comercio y Fonda LEIZA Navarra	JOXEPA LARRE Pescados al día LEIZA Navarra			
J. BAUTISTA ZABALETA «Olaso» TRATANTE LEIZA (Navarra)	Gregorio Lizarraga Bar y Comercio LEIZA (Navarra)	Juan Cruz Azpiroz Carpintería Mecánica LEIZA Navarra	CASA HOJALATERO RESTAURANTE LEIZA Navarra	MIGUEL AGUIRRE «Gaztelu» Fontanería - Electricidad LEIZA Navar			
José Joaquín Arraras CONTRATISTA DE OBRAS PAMPLONA	Bernardino Bengoechea Albañilería LEIZA (Navarra)	Sebastián Gogorza Panadería y Comercio LEIZA Navarra	Larraz Hermanos COMERCIO LEIZA Navarra	Casa Dolores (Circular) Bar y Comidas LEIZA Navarra			
Bautista Sucunza CONTRATISTA DE OBRAS LEIZA (Navarra)	<div style="border: 2px solid black; padding: 10px; text-align: center;"> <h2>PROGRAMA DE FESTEJOS</h2> <p>organizados por el</p> <h3>CLUB DEPORTIVO AURRERA</h3> <p>de Leiza, en colaboración con el Excmo. Ayuntamiento, Veraneantes e Industriales, para los días 12, 13, y 14 de Agosto, con motivo del Primer Aniversario de su Fundación.</p> <p>DIA 12.—A los ocho, encierro y embolados. A las seis de la tarde, embolados.</p> <p>DIA 13.—A los ocho, encierro y embolados. A las seis de la tarde, embolados.</p> <p>Día 14.-EL DIA GRANDE DEL CLUB</p> <p>«ADVERTENCIA.—Como nos faltan petalos tiraremos la ventana por la casa; si nos sobran, tirariamos la casa por la ventana. A las 9.—Diana por la mañana con asistencia de todos los socios, disparo de cohetes y bombas (pero no de mano). Simultáneamente, 1 GRAN CIRCUITO PEDESTRE DE LEIZA, con el siguiente itinerario: Ayenea, Gogorzanea, Casa Paco, Lizarraga, Gaztañaga, Aracandegüia, Lasartenea, Zorzico, Hojalatero y Peustenea. A la Estación no se va porque hoy cuesta y a Olaverria porque sólo venden gaseosos y sifones. PREMIOS: 1.º Una caja de gaseosas. 2.º Una caja de sifones. 3.º Una jarra con agua. A las 10.—Emocionante encierro. L.º S socios del Aurrera para hacer honor del club, correrán aurrera, «aso aurrera». Seguidamente embolados con bolas, pero no es BOLA. A las 12.—Si el tiempo no lo impide, vea la pelota y pueden sostenerse de pie interesante partido de pelota entre destacados pelotaris de la Sociedad. A la 1 y media —SUCULENTO BANQUETE. Menú... do... lio: Entremeses: Sardinas viejas, huesos de aceituna y sesos de mosquito (Bocado exquisito). La paella se suprime. Nos gusta todo para nosotros. En su lugar se servirán acelgas a la vinagreta. (El aceite está muy caro). Menestra de verdura con caracoles sin carne. Postres: Anchemelos, cacahuetes y moras con «sacarino» (El azúcar a estos precios no nos gusta). Manzanita, copa de agua y ayena. BEBIDAS: Agua de Charragarri, de Ilurri-zarrea, gaseosos y sifones. Precio: 25 pesetas. Págo adelantado. No se fia nada ni de nadie. A la terminación del banquete se cantará a tantas voces como comensales haya, el siguiente programa: a) ¡Qué hambre tenemos! b) ¡Eto es un timo! c) ¡Que nos devuelvan los cuartos! A las seis de la tarde.—Embolados. Los valientes de la Sociedad torearán de la torre; los cobardes de Santa Cruz, y los que se «limpian» en los pantalones, desde Putzen-barda. A las 7.—Inguurucho de los casados. A las 8.—Música, si hay músicos. A las 9 y media.—Cena (Cada cual en su casa, para quitar el hambre del mediodio). A las 11.—Música. NOTA.—Los festejos continuarán el año que viene (D. m.) en esta misma fecha. ÚTRA.—Si hay mas socios, serán más y mejores. Condiciones para ser socios: Que tengan buen humor, no les guste el agua y... paguen la cuota. Esta es la condición más importante. Invitamos a todos, jóvenes y veteranos, del pueblo y de los caseríos a que entren socios para el próximo año. CONSIGNA PARA ESTAS FIESTAS: ¡ALEGRÍA, POCA AGUA Y QUE TRABAJEN LOS TONTOS!</p> <p><i>La Comis'ón de Festejos del Club</i></p> </div>			Miguel Antonio Zabale Tratante de Ganados Teléfono, 8 LEIZA			
Merendero «TARDOA» Alto de Ezcurra LEIZA				Serrería Mecánica Electra «San José» Fabrica de Gaseosos LEIZA Navarra	Francisco Azpiroz Herroje y Taller Mecánico LEIZA Navar	Rejería Plácida Máquinas de Coser y Borda LEIZA Navar	Florencio Larra Pescados al día LEIZA Nava
CLAUDIO LARGO ZAPATOS A MEDIDA LEIZA (Navarra)				Lazcano Hermanos TRATANTES Teléfono, 14 LEIZA	Fermin Gogorza TRATANTE Teléfono, 1 LEIZA	Lázaro Arrarás Contratista de Obras Teléfono, 11 LEIZA	Manolita PELUQUERIA DE SEÑOR LEIZA
LUCIANO ENSAL Explotación Forestal ZARAÚZ (Guipúzcoa)				GOICO-BORDA Explotación Forestal LEIZA (Navarra)	BENITO MUGICA COMIDAS Alto de Ezcurra LEIZA	Vda. de Gómez TEJIDOS (Navarra) LEIZA	Viuda de Gogorza FONDA LEIZA Nava
Antonio Rodríguez Zapatos a medida LEIZA (Navarra)				Hormas QUERCUS PALMA DE MALLORCA	Miguel Joaquín Sagastibelza ALBAÑILERIA (Navarra) LEIZA	Basilio Ranz Barbería - Reparación de Bicicletas LEIZA	Fermin Lizarraga Tratante de Ganados Teléfono 3 LEI
Caja de Ahorros de Navarra SUCURSAL LEIZA (Navarra)				José Alduncin Taller de Carpintería LEIZA (Navarra)	Zabaleta-berria Carpintería (Navarra) LEIZA	Antonio Rodríguez Zapatos a medida LEIZA (Navarra)	Margarita Sagastibel Modista LEIZA Nava
Francisco Gogorza COMERCIO LEIZA (Navarra)				Miguel Lizarraga Comercio y Fonda LEIZA (Navarra)	Florencio Lizarraga Tratante LEIZA Navarra	Juanita Muñoz Modista LEIZA Nava	Arribillaga Herman Modistas LEIZA Nava
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra				José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	Enrique Alvarez Consulta los domingos LEIZA Navc	Enrique Alvarez Consulta los domingos LEIZA Navc
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra				José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	José Luis Escuvi Especialista Aparato Digestivo BILBAO	José Luis Escuvi Especialista Aparato Digestivo BILBAO
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra				José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	Lorenza Largo Modista LEIZA Navc	Lorenza Largo Modista LEIZA Navc
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	Astibia Hermanas Modista LEIZA Navc	Astibia Hermanas Modista LEIZA Navc			
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	María Jesús Sagastibe Modista LEIZA Navc	María Jesús Sagastibe Modista LEIZA Navc			
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	Juanita Azpiroz Modista LEIZA Navc	Juanita Azpiroz Modista LEIZA Navc			
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	Gregorio Sagastibe Aspico-Errato LEIZA Navc	Gregorio Sagastibe Aspico-Errato LEIZA Navc			
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	José María Echeverría Consulta los miércoles LEIZA Navc	José María Echeverría Consulta los miércoles LEIZA Navc			
José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	José María Lizarraga Panadería-Central Eléctrica LEIZA Navarra	Sres. de Carreño Fabrica de Jabón MADRID	Josefina Erviti Modista LEIZA Navc	Josefina Erviti Modista LEIZA Navc			

JOXEMIEL

Servicio - Campanero - Carpintero - Talmiario - Pelos
Alquiler de maquinaria agrícola y charrasca - Maestros de
ceremonias (Bodas, Bautizos, etc.) - Pintores - Pampas
Paseos y Entarador. LEIZA
Teléfono 1974652

BANCO VIZCAYA
Sucursal Navarra
LEIZA

Juanita Azpiroz
Modista
LEIZA Navc

Club Deportivo AURRERA
Alegria - Buen humor
Menos cuento y más petalos
LEIZA Navarra

ERVITI Hermanos
Fabricantes de Hachos
LEIZA Navarra

José Fermín Lizarraga
Carnicería
LEIZA Navarra

Gregorio Sagastibe
Aspico-Errato
LEIZA Navc

SOCIEDAD VINICOLA DE CAMPANAS
Vinos Finos de mesa
LAS CAMPANAS Navarra

Bernardino Bengoechea
Albañilería
LEIZA Navarra

José María Lizarraga
Panadería-Central Eléctrica
LEIZA Navarra

José María Echeverría
Consulta los miércoles
LEIZA Navc

Florencio Lizarraga
Tratante
LEIZA Navarra

Sres. de Carreño
Fabrica de Jabón
MADRID


José María Lizarraga
Panadería-Central Eléctrica
LEIZA Navarra

Josefina Erviti
Modista
LEIZA Navc

Bertan agertzen dien programa eta argazkie orain dela 50 urtekoak die.

Biste ona dauken norbaittek programan agertzen dena leittu badezake, ikusiko do garai hartan umorea ez zela falta, gainontzeko guztia eskas ba zuen ere.

Garai hartakoek ere, asmatu zuen AURRERA izena paatzekin gure soziedadeari; oraindik "atzera" biñipin ez baitugu egin.



Plazaola

pestetako egitaraua

O H A R R A K

1. INCANSABLES txarangak egunero, eguerdi, atsalde eta gaben herriko bazta alaituko ditu.
2. BURU-HAUNDIK atsaldero aterako dire TXARANGAKIN batera.
3. UDALAK ez do XEXENETAN gerta dittekeen istripuen erantzunkizunik.
4. EGITARAUE borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN eta TABER TAN ere salgai egonen da.
5. Aurten ASEGARCEk antolatutako partidu profesionalen berri esku programez izanen dugu, bertan lekue. ordue, eta abar. zehaztuko dielarik.
6. XEXENETAN dabilzenei eskapa bidea errezagoa egiteko barreren gainean ino esertzea, eskertuko ginuke.
7. AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIRA joan nahi dunak, txartelak Aburuen 13a beño lehen, salgai izanen ditto MENDIZABAL ta MUSUNZAREN.
8. Goizeko hiruek aldera, egunero, INGURUTXOA dantzaten saiatuko ga. Ikusitakeneko urte hotan, gero ta okerrago gabiltzela, gure INGURUTXOA alde batetik dantzatzeko, faborez eskatuko ginuke, jendea atera dedile dantzatzera edo indar egitera beño fundamentu pixko batekin, eta txistulariri eta eskoberoiei kaso eg

A V I S O S

1. La charanga LOS INCANSABLES animará el pueblo todos los días de mañana tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días por la tarde junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hará cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se repartirá a cambio de la voluntad. Además se podrá tener en el Ayuntamiento y los bares del pueblo.
5. Asimismo, se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionalizados por «ASEGARCE», mediante los correspondientes programas de información.
6. Sería de agradecer que el público asistente a los espectáculos taurinos, se abstenga de sentarse encima de las barreras, para así facilitar la huida de los que se encuentren en apuros ante las embestidas de los astados.
7. Todo el que desee asistir a la comida de socios del C.D. AURRERA deberá comprar el ticket antes del 13 de Agosto en los bares MENDIZABAL y MUSUNZAL.
8. Todos los días, a las 3 de la mañana, habrá INGURUTXO en la Plaza. Se ruega seguir las indicaciones de los txistularis y los escoberos.

PLAZAOLA


LEITZA 96



LIBRIZIO DONEAKEH FESTAK

abuetuak 10

PLAZAOLA



adad

PLAZAOLA

Plazaola

EUSKAL HERRIA ASKATU!

Leitzan, eta orokorki Euskal Herri osoan, aspaldi hontan gertatzen ari denarekin kezkatua gauden batzuk gure iritziak zabaldu nahi ditugu pilpilean dauden arazo batzutaz.

ALDE HEMENDIK!

Koarteleetik herrira etorri gabe urte asko emanda gero, aspalditxo honetan noiznahi ikus eta senti daitezke goardazibilak herrian: beldurra ematen duten gaueko kontrolak nonahi jartzen, baserriak miatzen, kaputxatuta herri erdian karnetak eskatzen, isunekin zigortzen... Ia egunero, eta okerrago dena gauero, dabilta haruntz eta honuntz. Herrian ez da deus berezirik gertatu. Zer ari dira bilatzen, ba?

1980 eko hamarkadan herri hau nola astindu zuten gogora ekartzea oso gauza ona izan daiteke une hauetan zein arriskutan jartzen gaituzten berriz denok ikusteko: lehergailuz etxe bateko atea gaueko hiruretan hankaz gora bota, atxiloketa ugari (gau bakar batean zazpi lagun eramatera iritsi zirelarik), tortura basatiak (apaizak barne), manifestazio bat sakabanatu ondoren gazte batzuri tiroa bota kotxean gordeta daudelarik (bala batek gazte bat bizkarraldean jo zuen), pelotazoak noiznahi manifestazio lasaiak sakabanatzeko (jendea ospitalera bidaliz eta tabernetan kristalak e.a. hautsiz), jubilatutako bati tiroa hanketara bota beren tabernatik ateratzean, mozkor-mozkor eginda diskotekan pistola atera, herri osoa inguratu (tanketa eta guzti) manifestazioak antolatzen zirenean, Udaletxetik ikurriña eraman (oraindik ez dute bat bakarrik itzuli), Santiburtziotan kalejira bat bukatu ondoren eta jendea bere gisa sakabanatzen ari denean goardazibilak eroak bezela plazan pelotazoka hasi (musikeroak oraindik kioskoan daudelarik)...

Denok memoria egiten hasiko bagina, seguro oraindik beste halako hamaika ekarriko genukeela gogora minutu batean. Baina seguro aipatutakoekin aski dela goardazibilak koarteleetik «mugitzen» direnean nola eta zertarako egiten duten gogaratzeko.

Zertarako ari dira, beraz, mugitzen hainbeste bolada honetan? Horixe da gure aurreneko galdera. Bada ezpada, erne egon gaitezen; beren abusoak geldierazteko erantzunak azkar eman behar dira eta. Eta alde hemendik taldean lanean hasi berriak direnei animo!

ETXEA HERRIARI ITZULI!

Behar bada oraindik ez dakizu goardazibilek erabiltzen duten etxea herriarena denik. Halaxe da, ba. «Errentan» utzia dute 1902 gn urtetik. Garai hartako alkateak kontrato bat sinatu zuen goardazibilaren buru egiten zuenarekin: Udalak etxea erabiltzen uzteko, konponketa lan guztiak Udalak bere gain hartzen zituen eta urtero fatxada pintatzeko konpromezua hartzen zuen; horren truke goardazibilek ez zuten pezetarik ordainduko, Udalak etxea dohainik uzten baitzien. 94 urteotan, beraz, Udalak ez du pezeta bat bakarra jaso etxe horren errentagatik.

Udalak kontrato hau baliorik gabe utzi nahi badu, bi hilabete aurretik adierazi behar harko dio Komandantziako Buruzagiari. Hala dio behintzat kontratuak, laugarren artikuluan.

Plazaola

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Juan Migel Apezetxea (Goizueta), Juanjo Zubieta (Lekunberri) eta Xabier Goldaraz (Mugiro) ditugu hurbileneko preso politiko euskaldunak. Eta hauekin batera, beste 600 preso eta ehundaka atzerriratu torturazaile espagnolaren esku ez erortzeko alde eginak. Apezetxeak 16 urte egin berri ditu gartzelan. Bada 18 eginak duen presorik. Noiz etorriko da justiziaren eguna?

Justiziak gaur egun izen bakarra du hemen: autodeterminazio eskubidea Euskal Herriri. Estatu espagnolak berak Hitzarmen Internazionaletan sinatua duen eskubidea.

Bitartean, eta presoak pertsona bezala lur jota uzteko asmo bakarrarekin, sakabanaketa (dispertsioa) asmatu zuen Espagnolako Gobernuak, besteak beste EA, UPN eta CDN-ren oniritziarekin. Sakabanaketa honen bitartez presoak etxetik ehundaka kilometrotara daude eta etxekoek arazo izugarriak dituzte: ezin astero presoak ikusi; etxeko ekonomiak lur jota kasu askotan; kotxe istripuak maiz (hilak ere badira); guraso adinduak, semealaba ttikiak, aitonamonak, senide elbarriak... ezin ia inoiz presoak ikustera joan; konfidantzako medikuek ezin gartzelan sartu larriak dituztenean; Unibertsitateko irakasleei sarrera oztopatu, nahiz azterketak egin behar kurtsoa aurrera atera ahal izateko...

Euskal Herritik urruti daudenez euskaldunon laguntza murriztua geratzen da; gartzeleroek jipoiak emateko aprobetxatzen dute. Horren medioz ez dira gutti gaitz sikologikoak sufritzen ari diren presoak.

Hortaz gain, presoek zigorra etxetik hurbilen dagoen gartzelan bete behar dutela dio legeak. Baina Gobernuak ez du legea betetzen; hala er EA eta UPN, besteak beste, isilik geratu dira zortzi urteotan. CDN-k ere ez du deus egin sortu denetik.

Zigorraren hiru laurdenak beteta daudenean presoak kalean utzi behar dela dio legeak. 130 preso dira orain bertan baren etxean egon beharko luketenak legea bete ezkerok. Baina 130 preso horiek gartzelan daude oraindik.

Legeak dio gaitz sendaezinak dutenak etxera bidali behar direla. Badira lau preso politiko horrelako gaitzak dituztenak. Baina gartzelan jarraitzen dute.

Justizia bultzatu nahi badugu, presoak euskal herrira azkar ekarriak izan daitezzen eragin behar dugu. Konpromisoa eta mobilizazioak Artzai Onean astebeteko baraualdia eginen baitugu Leitzaldeko 15 lagunek.

Ez dezagun egin Udaletxean UIL taldeko ustezko independenteeke egin duten bezala: eskuak garbitu senideak elkarreke legea betetzearen aldeko aldarrikapena eskatu die-nean. Hala egin zuten Silvestre Zubitur eta Beatriz Zabaleta zinegotziak.

Leitzan, 1996-VII-10.

«Euskal herrira askatu»-ko kide batzuk

Plazaola

HARROBIAK

Dagoeneko herriari harrobien inguruko berria lehenengo aldiz iritsi zitaionetik denbora dexente pasatu da. Zeresan haundia sortu zuen, ALBIÑON nahiz KORDOBANEN harrobiak egiteko asmoa zegoela jakin zenean, eta herria nahiko kezkatua agertu zen.

Nahiz eta aurretik bilera gehiago eginak izan, otsailekoak erabakiorra izanen zen itxura zuen. Bertan, bi harrobiei buruzko erreferenduma egin edo ez planteatu zen. Herri Batasunak bertan, egun batzuk lehenago herrian erreferendumaren alde jaso zituen 1.100 sinadura aurkeztu zituen, hauen bitartez, herriaren nahia argi utziz. Kontuak kontu, batzarre honetan EA eta HB erreferendumaren alde agertu ziren eta UIL-ek aurkako botua eman zuen. Beraz, une horretatik aurrera jende informatu eta erreferenduma gauzatzea besterik ez zen gelditu.

Geroztik, bost hilabete pasatu dira, eta prozesua etena dago. EA erreferendumaren prozesuak aurrera segi ez dezan, oztupoak jartzen ari da. Benetan jokabide xelebrea! Udal akordioan erreferendumaren alde azaldu eta orain hori oztopatu nahian! Jokabide honi, ez diogu inolako itxura onik aurkitzen. Zer ondorio atera dezakegu hemendik? EA-k interes ezkutuak dituela. Beharbada, beraiek espero dutena, KORDOBANGO harrobiaren eskaizuna ofizialki sartua ez dagoenez, denbora pasatzen utzi eta erreferenduma ALBIÑOKOARI buruz bakarra egitea izanen da. Honela hau irabatzeko aukera gehiago edukiko dutelakoan.

Benetan kezagarria iruditzen zaigu, udalaren jokabidea. Orain arte udal batzarretan sinatzen ziren akordioak zerbaitetarako bailo zutela uste genuen, baina une honetan, udalarekiko sinesgarritasuna gaitzen hasiak gara. Alde batetik, EA-k bere interes ezkutuak defendatzearren, udal akordioa sinatu ondoren bere burua horrela kontrajarri duelako, bestetik HERRI BATASUNAK, EUSKO ALKARTASUNAK jarritako oztupoak gainditzen jakin ez duelako, eta azkenik UIL utzikieran murgildua dagoelako.

Herriarekin nahikoa jokatu duzuela uste dugu. Eskatzen duguna, udal akordioan sinatu zen eta denen eskubidea den erreferenduma burutzea da eta ez dugu uste hau hain zaila denik. Azken finean, erreferenduma egitea, erabaki hori hamaika zinegotzien artean hartzea baino irtenbide demokratikoagoa da, baina honetaz gain eta gauzak nola joan diren ikusita, udalak herriari esplikazio bat baino gehiago zor diola uste dugu.

Herritar Batzuk

Plazaola

ZURI

Urtero gauza bera esaten nion neure buruari:

-Datorren urtean, nik ere zeozer idatziko dut.

Orain arte gauzatu gabeko nahi edo amets bat izan bada ere, luma behatz artean hartu eta lehendabiziko hitza zein izan beharko lukeen ezin erabakiz nengoela, neretzat idatzi eta neronek irakurri, jaso edo botatzeko lerroak balira, taiuzko zerbait idatziko nukeela iruditu arren, abiatu naizela dirudi.

-Hau egoera trastexa!

-Zer idatzi dezaket?

-Zer axola ote zaizue nere erretolika?

Galderak, galderak...

Pixkanaka-pixkanaka, ideiak ezin lotuz nenbilen bitartean, eskuak lumari agindua eman bailo bezala, beraien bidea hartu eta ahuxe diote:

Aintzin-aintzinean, Leitzako biztanleek, lanean iharduten zuten egun osoa. Bizimodu gogorra eta neketsua benetan. Bakarka eta auzolanean aritzen omen ziren beraien behar eta bizimoduari aurre eginez.

Lanaren ordaina, lurrak oparitutako «urrezko» uzta preziatu eta aberatsa izaten zen.

Trebeak ziren bai etxe, nekazal, abeltzantza, zurgintza, hagintza... etabarretan.

Egun batean, garraio berri bati ongi etorria ematea bururatu zitzairen. Hau, Plazaola lokomotora zen.

Hura zen trastea, hura!

Denen ahotan egoten zen suge beltz eta zaratatsua.

Pasaeran, lanean edo inguruan zeudenen bisitari eta zenbaiten lagun zintzoa bihurtu zen.

Bizirik zegoen, eguneroko bizitzaren joan-etorrian, garrantziko «laguna» bait zen.

Egunak joan, egunak etorri, lagun lasai eta zintzoa, itzaliz itzaliz, lotan gelditu zen. Honela, bere fideltasuna eskertu eta izena denen gogotan mantentzeko, PLAZAOLA izeneko aldizkaria argitaratzea erabaki zuten.

Eskerrikasko PLAZAOLA!

Plazaola

BERTSO BERRIAK ABUZTUAREN 16-ari JARRIAK

Abuztuaren hamaseia da
laroitamabostekoa
egun ontako gora beherak
kontatzeko dut gogoa
lorik inondik ezin dut egin
nahiz hori nuen asmoa
inspiratutik nago gaur eta
bertsoak jartzera noa.

A ze sei egun bota ditugun
parranda iñez hain gozo
lana bakarra ongi pasa ta
kuluxkak egin eroso
pesta guztiak ezinobe ta
gaur bururik ezin jaso
zalantzik ez du leitzan egun hau
goibela degula oso.

Pasatu ditut goizen bi ordu
komon zuloan sartuta
ta hobe nuke mendira joan
bi paper-rollo hartuta
burua ere lertzear daukat
nekea ezin ezkuta
hiru hitzetan esatekotan
hemen nago txikituta.

Sei ordu dira inkansablekin
saltoka hor nebillera
hala arittu bair naiz gauero
igel eroa bezela
ezin sinistu gaurkoan hori
erabat bukatu dela
ta autobusa pasatu denen
uste nun txaranga zela.

Paztu nahi nuen zertxobait beintzat
herriri iñez bisita
ta juxtu-juxtun enaiz atera
blusa beltzakin jantzita
kalean berriz triste jarri naiz
katurik es ikusita
ta azkeneko errematea
taberna guztik itxita.

Udaletxeko rubioak lanen
soroan badela indarra
egurrak kentzen hasiak dira
berdin plazako ondarra
azken honetxek pesta guztitan
eman dit lata earra
hau degu beraz egun honetan
pozgarria den bakarra.

Plaza aldetik haizea hartuz
abiatu naiz etxera
azeri usai latza daukagu
batera eta bestera
hainbeste pixa parrazta botaz
ia ia itto gera
eskerrak gero izan degula
txokoko lontxon mangera.

Etxean blusak mareatu nau
kaleko usai berdinez
oñetakoak aoiñ-apaiñak
margotuk hainbat kolorez
rebozaturik kroketen pare
zerbezaz eta zerrautsez
urakin ezin ditut garbitu
zotala botaz ere ez.

Gaur dena beltza iruditzen zait
hau da gizonan itxura...
goizutan ere pestak direla
oran datorkit burura
ikusiz peztik gabe nagola
biderkatu zait trixtura
ordu gutxitan pasatua naiz
zerutikan ipernura.

Mixeri honek konponbiderik
ere motzen behintzat ez du
pattar tragoa botata ere
gorputze ezin zuzendu
iñ behar dena festak luzatuz
astelehena aldendu
edo egun hau egutegitik
beste baterako kendu.

Plazaola

Burniaren hotza sentitzen dut

Burniaren hotza sentitzen dut nere gorputzean, baina nere inguran, elkartasunaren berdasuna, eta askatasuna ta justiziaren beharrak, bultzatzen duen borroka sentitzen dut.

Ez dut begirik, baina branaualdiak gastatu eta xurgatutako, gorputzak ikusten ditut. Ez dut belarririk, baina txapeoaren ixiltasuna entzuten dut. Ez dut oinik eta nere egonkortasunak inguruko ekintzen berriemaile bihurtzen naute.

Nere burni artean, iraila ezkerotik, borroka berezi bat sentitzen ari naiz: Giza eskubideen, reagrupamenduaren, eta askatasunaren aldeko borroka. (Dispertsioa), trato txarren, tortura fisikoa, tortura sikoagikoa eta abarren aurkako borroka.

Harri eta porlanez altxatutako pareta, hotz eta ilun hauen tartetik, hamaika gauza ikusiak ditut: egun sentia argitzen astearekin batera, jipoiak hotsak entzuten ditut, oinazearen oiua eta ezintasunaren tanpadak sentitzen ditut. Gau ilun batean, piztiz inguratutik, inora ihes egiteko irtenbiderik aurkitzen ez duen axuri bakarti baten gisa, iharraturik sentitzen ditut nire inguruko gizaseme eta emakume euskaldun hauek.

Hauetxek bait dira benetako gudariak, inolako altxorren esparik gabe beraien bizi eta bizimoduak honela jokatzeko dituztenak. Herri baten askatasuna eta independentziaren egarria bakar, bakarrik dastatuaz. Ormarik gabe utzi nahi duten etxe baten, gure etxearen, Euskal Herriaren zaindariak besterik ez dira kataiaz loturik ibiltzeko.

Pareta hotz eta zimel hauen erditik, majima bat hots entzunak ditut, baita karraixi, oin eta antsiak ere, giza andre hauek torturaren menpe indarkeriaren poderioz zapaltzen dituztenean.

Zenbait aldiz, zementuzko jauregi hauen teilatupeetatik, kail zintzarrak estalaktiten antzera zintzilikaturik, eta barrukaldean atarian baino hotz izugarragoa egon arren, ikusi ote ditut, gau ilunaren edozein orduan funtzionarioek etorri eta euskal abertzale hauek biluztera bortxatzen.

Zenbait aldiz, barruan edukitzen uzten dizkien gauz murrizak lurrera bota eta txikitzen.

Zenbat aldiz, beraien senideek hilen dituztela, torturatuko dituztela, eta abar eta abar bezelako meatxuak esaten.

Nik pareta beldurgarri hauen tartetik ikusten dudana bakarrik dakit, baina egia esan behar bada ez dut bihotzik eta ala ere edukiko banu bezalaxe senti dezaket giza-seme eta emakume hauen lagun beharra, ez dut begirik baina itsuek ere ikus lezaket nahi izan ezkerreko hemen gertatzen ari dena. Ez dut muinik baina pentsa dezaket; nola esan dezaket Euskal Herria aske dagoela? ez bait da inoiz aske izango haiek gabe, haiekin askatuko bait gara gu ere.

Etxe bati, zeure etxeari, zutabeak erortzen asten bazaizkio, senide guzien artean eutsi beharko zaie, gogor eta tinko ez dedin osotara lurreratu. Senideetariko norbaitek aldegin lezake, anai arrebak, guraso eta aiton anonak zutabe pisu eta galant haien eustainez utzia, baina ihes egiten duenak ez dezala gero zutabeak konpondutakoan hori bere etxea denik esan, ez bait zuen errespetatu maitatu eta landu bere arbasoen ohitura, izaera, hizkera eta hainbat eta hainbat gauza zutabe haien gainean bere etxea mantentzen lagundu. Ez bait da kidea, kolokan dagoen etxeari lagundu beharrean jauregira aldegin eta lehenengo hau erortzen uzten duena.

Beraz esan beharra dago euskal Herriaren zutabe guztiak altxatzeko orduan, euskal preso eta errefuxiatu guztien indarra behar dela, beraiek bait dira etxe hontano partaide indartsuenak.

Bultzatzen gogor kanpotik eta zuek bultzatzen barrutik, askatu ni pareta tarte hauetatik eta salto bat eginez atera zulo zahar hontatik.

Euskal presoak euskal herrira!

Plazaola

1996-VII-6 "ORAIN" ELKARTEAN Bazkaldu ondoren

Agur eta ongi etorri, Leitzatar bihotzekoak. Plazaola errebisterako zerbait egin behar harra neukanez, gaur egokitu zait hortarako txanda. Nik Plazaolan bertan jaioa nola naitzen «Franki» baserrian, hango berri oso egoki datorkit izen honekin, Plazaolarekin. Eta gazte denborako eta geroxeagoko ba, gauza batzuk gogora etortzen dira inoiz ahaztutak ez zaizkidanak.

Ni herri hontara bertsoara etortzen hasi nintzan 18 urte eta lehenengo bertso saioa egin nuen Martikoneko Bitoriorekin, ez dakit gaur bizi dan ala hila dan. Hila dala esaten dit batek, nerekin dagoen lagun batek. Haretxekin udaletxeko goiko balboitik noiz kantatu nuen gogoratzen naiz. Hemen ba zan Sankristan zahar bat ordun Jose Migel izena zuena eta Frankian gure baserrian noiz nahi han izaten zen. Gure aitarekin eta amarekin konfiantza haundia zuen gizona zen gizon apala, umila. Jakin zuenean Franki ko semea nintzala ni, gora igo zitzaidan udaletxean goiko balkoira eta esan zidan bizkarrean jeitsiko zaitut behera. Izena galdetu zidan.

-Zer dezu ba izena zuk?

-Nik, Manuel.

-Manuel Lasarte (esan zidan) izango zera.

-Bai. Bizkarrean zure bizkarrean jeitsi beharrik ez daukat nik. Hankak onak daukat eskailera behera jeisteko, Jose Migel (esan nion) lasai hartu, kontuk esanez jeitsiko gera elkarrekin.

-Ez, ez, Nik nere hitza bete behar det.

Eta bizkarrean hartu eta behara, jetsi ninduen plazaraino. Gizon haren ilusioa eta poza oraindik gogoan dauzkat. Bera ere aspaldi hila dela badakit.

Hura, zurgin egoki bat zala uste det, eta hildako korputzen kajak eta berak antolatzen omen zituen noski. Enterratu ere bai eta gero elizako ezkilak jotzen artista izugarria omen zen. Hori ere serritan entzun nuen.

Ni honera etortzen oso umetatik hasi nintzan. Uste det ordun argi meza deitzen zuten tzaion goizeko lehengo mezari. Meza hori seit'erdietan edo hola izaten zela uste det, eta aitari esaten nion bezperan.

-Bihar deitu e aita.

-Bihar nerekin jun behar al dezu ba mezetara (esaten zidan).

-Bai, zurekin jun nahi det.

Ba al dakizue, zergatik esaten nion? Meza entzun ondoren Arakindegina sartzen giner Arakindegina ziran ordun taberna eta denda, biak, eta opil haundi batzuk egoten zira hamar zentimon. Opil gozo hura jateatik etortzen nintzan, aitak holaxe ematen zidar berak kafetxo bat hartzen zuen kopa batekin eta neri opil eder hura eman. Neretzat gozotamena, eta harentzat ere bai. Gero Frankira joaten ginen, haren egun guztiko farrandak horixe izan ohi zen. Gero ez zen etxetik inora ateratzen. Plazaolan bazen kantina Zuletanera edo baina haraino ere ez zen joaten. Etxeko lanetan bere ganaduakin eta berkezakakin.

Beraz horik denak esan ondoren poza haundi batez Plazaola errebista hontarako hitz batzuek egin nahi nituen eta hortaraxe nihoa. Plazaola hau nik ez nuen ezagutzen errebista hau eta joan zen urtean bialdu zidan Lorentxo Lasarteren alabak, hor libreria daukanak eta aurten nik ere zerbait egitea pentsatu det.

Plazaola

Leitzako herria da herri bat oso goi mailakoa, festak antolatzen eta egiten. Hemen lagunarte zoragarriak bilatu izan ditut nik urtero etorri naizenen, urte askotan bertsoara eta oso gutxitan bezelako elkartasunezko lagunarteak bilatu ditut neretzat. Danentzat ez zinan berdinak izango baino ni beti gustora etorri izan naiz honera eta gaur ez dedile azkena izan. Horixe nai nuke.

Guztiok ongi igaro San Tiburzio festak, alaitasunez eta pake osoz. Horixe desio di-zuet eta bihotzez, AGUR LEITZATARRAK.

*Gure denboran ibili degu
hamaika bertso ta txiste
ta orain ere egon beharrik
bai al dago hemen triste.
Lagunarteak bertso bat edo
bi mereziko lituzke
zuek entzun nahi izan ezkeru
nik kantatuko nituzke.*

*Humore onak ez du egiten
governatzean kalterik
libertadea eskuan degu
hemen ez adago katerik
inola ere nik ez neukan
ixilikan egoterik
ez du merezi bertso batzuek
kantatu gabe joaterik.*

*Nekeak ez du inoiz aspertu
hemen Lasarte flakorik
badakizute ez daukadala
zuen gisako leporik
ta berriketan jarraituzeko
ez daukat sobran denborik
eta gezurra esan beharrak
guretzat ez du mejorik.
Bertso batzuek osatu ditut
nekuan hainbeste gogo ta
izanez ere zuen artean
oso kontentu nago ta.
Hargatik ditut nik une hontan
dozen erdiren bat bota
zenbat gehiago egin behar nun
franki zuloan jaiota.*


*Leitzako herria osatu da
zelai soro eta mendiz
hamaika bidez bera gustora
ikusita nago begiz
anai zerate nereak eta
maitatzen zaituztet egiz
oraingo aski izango degu
eta hurrengoan berriz.*

Manuel Lasarte



Plazaola

AÑALDEKO MIKEL ARTISAUTZAN




Mikel Lizarraga, berak egindako harmarriaren ondoan.

Tarteka eskulturaren bat egiten badu ere, Añaldeko Mikel Lizarraga herriko artisau bat dugu, «ni, esateko, artista baino gehiago artisau kontsideratzen naiz. Gehien bat erliebeak, kutzak, harmarriak... nahiko gauza tradizionalak egiten ditut». Aurrena buztinarekin hasi zen Mikel «Felix eta Pitularirekin zeramika ikasten aritu nintzen. Oso gustora egiten nuen lana beraiekin eta gainera asko lagundu zidaten». Halere, arazo batzuk zirela eta klaseak emateari utzi egin behar izan zioten. Handik hilabete batzutara Mikel fabrikari lanean hasi zen eta orduan erabaki zuen oso gaztea zela horrelako bizimodu eramateko; gainera ez zitzaion gustatzen. Beraz, «beste material batzuk probatzeko gogoan nuen Debako eskolara joan nintzen». Han arte modernoa zen nagusi, eta hasieran mundu hori ezagutzen saiatu bazen ere, «hain gutxi gustatu zitzaidan ez nuela han bizitzaren giroa segitu». Bestalde, ez zioten berak nahi zuena irakasten; beraz, Leitzako plaza-ko harmarria egiteko konpromisoa hartu eta hala ahal zuen hobekien egin zuen, estilo horretako bere lehen lana izan bazen ere, «hola ikasi nuen harria eta zuren ere berdina lan bat eskeintzen dizute, zu konprometitu, nahiz aurretik holako lanik egin ez duzun eta nolabait aurrera atera».

Honela, gaur egun zura eta harria lantzen ditu batez ere. Harria Zubiturren harrobitik erosten du gehienetan. «Batzutun gertatu izandu zait etxe xahar batetik zerbait erikatu eta handik ateratako harri batean lan egitea. Bilatu ere bilatu daitezke baina zaila da harri ona aurkitzea». Zura berriz zurginei erosten die, gehien bat haritza eta gaztaina ere dexente. Intxaurre ere maiz erabili du azken bi urteotan, zuhaitz bat oparitu egin baitzioten.

Plazaola



Leitzeko plaza. Mikelek erliebean egina.


Oraingoz etxean aritzen da lanean «nahiko leku eskasa daukat. Zura lantzeko ganbaran tailer bat dut baina oso txikia da, oso laku gutxi gelditzen zait». Gainera, berezitasun bat du; eguraldi ederra dagoenean harrian aritzen da «leku irikia goa behar duenez askoz ere gustorago aritzen naiz bero egiten duen egunetan, izerdia botatzen eta». Zura lantzeko berriz

nahiago ditu egun goibelak «zura goxoagoa bezala da eta leku itxiagoa behar duenez nahiago dut eguraldi tristea, nik eguraldiari behintzat asko begiratzen diot».

Eskuz egiten duenez lan gehiena nahiko erraminta artizanalarik erabiltzen ditu, oso makineria gutxi daukalarik. Harrian erabiltzen du makineriarik gehien «beti erabili izan diren instrumentuez gain Rota-Flex, konpresorea, martillo neumatikoa... dira nere erramintak; ez daukat gehiegi baino daukadanarekin ongi moldatzen naiz».

Halere ez da batere erraza ogibide hontatik bizimodua ateratzea «gauza hauek saltzeko asko mugitu behar da, ni artesani ferietan ibiltzen naiz. Gainera, badaramazkit lanean urte batzuk ere eta poliki-poliki jendeak ezagutu egiten zaitu. Honela harmarriak, kutzak, letreroak eta tarteke trofeoak edo oroigarriak enkargatzen dizkirate». Neguan askotan ez zaio inor etortzen, eta udaberrian berriz lan asko biltzen da, batez ere aurtengoan.

Gehien gustatzen zaion euskal eskultorea Koldobika Jauregi da, bere lehenbiziko lanak azkenekoak baino gehiago atsegin dituen arren. Txillida ere gustokoa du, baina bere eskulturen formetan gehixko errepikatzen dela iruditzen zaio.



Plazaola

LEITZAKO HERRIA

*Mendi tarteko zulo batean
herri txiki polit bat,
Euskal herriko, txokomaitea,
gure herri Leitza da.
Baina txikia bada biztanlez,
oso handia bihotzez,
denok batera goaz abesten,
esaera zaharrak dioenez,*

*Leitza haundi, Leitza haundi,
Leitza haundi, Iruñen paren,
Madrilen, Madrilen, Madrilen,
nahiko genuke...
Leitza haundi, Leitza haundi,
Leitza haundi, Iruñen paren,
Madrilen, Madrilen, Madrilen,
nahiko genuke.*

*Leitzako eliza, ta udaletxea,
erdian plaza eder bat,
herri hontako abztar guztiak,
dirade ospetsu eta ezagunak.
Ahaztu dezagun, hainbat nahigabe,
bizi gaitezen poz pozez,
denok batera goaz abesten,
esaera zaharrak dioenez,*

*Leitza haundi, Leitza haundi,
Leitza haundi, Iruñen paren,
Madrilen, Madrilen, Madrilen,
nahiko genuke...
Leitza haundi, Leitza haundi,
Leitza haundi, Iruñen paren,
Madrilen, Madrilen, Madrilen,
nahiko genuke.*

*Txoko hiontako ospakizuaanak,
dirade ikusgarriak,
mundu guztiko tokietatik,
datoz herria ikustera.
Hartu ditzagun ta elkar gaitezen,
pozez eta alaitasunez,
denok batera, goaz abesten,
esaera zaharrak dioenez,*

*Leitza haundi, Leitza haundi,
Leitza haundi, Iruñen paren,
Madrilen, Madrilen, Madrilen,
nahiko genuke...
Leitza haundi, Leitza haundi,
Leitza haundi, Iruñen paren,
Madrilen, Madrilen, Madrilen,
nahiko genuke.*

Sorkunde

Plazaola

Andante *Leitako Herria*

Mene di tar te ko zu lo baste an he ni tri ki po lit bat Euskal he riko

txo ko mai te a qu re he ni. Sei tra da. Bai naxi ki a ba da bis tan ler

o so han di a bi ho tres denok ba tera go o ar a besten e sa era zahar rak

Majestoso
di o e ner: Sei tra haundi Sei tra haundi Sei tra haundi Y ru nen pa ren

Ma dri len Ma dri len Ma dri len nah i ko ge nuke Sei tra haundi Sei tra haundi

Sei tra haundi Y ru nen pa ren Ma dri len Ma dri len Ma dri len nah i ko ge nuke
ritardando

Sorkunde

Plazaola

ATERALDIAK

IZAIAK NOLA SORTU ZIREN

Igande goizean Martin eta Oxemari Eskibarren ari ziren gosaltzen. Saiski errez enp egin zutenean gazta zaharra jaten ari ziren Mañeruko ardoa edanez. Hontan etortze dire bi kotxetan Ereñozukoak eta izaien galdera egiten diote. Martinek eta Oxemar beren kotxea hartu eta joaten dira izaiak erakustera. Ereñozukoak galderak egiten ha ziren:

-Zenbat urte dituzte zuhaitz luze hauek?

-Berrehunen bat urte.

-Eta aldatuak edo bertan erriñak ote dira?

Galdera honekin hasi ziren eztabaidan. Batzuk aldatuak zirela eta besteak ezetz, a datuak izan balira herrenkadan egonen zirela eta purrustaka erriñak zirela. Luzaroan a ziren eztabaidan eta ez zuten ur garbirik ateratzen. Azkenean Oxemarik erabaki zu auzia. Hasi zen eskopeta eskuetan balu bezela legeak egiten eta esan zuen:

-Gerrate batean gizon mordoska ekarri zuten honera fusilatzerara eta batek txamarr tan poltsan izakio hazik eta hortatik sortuak dira izaiak.

AZINDARI KENDU EGIN BEHAR ZITZIOK

Baztan.-Azindak ez dik deus ere ematen.

Karlos.-Ez, azindak eman ez dik egiten, azindari kendu egin behar zitziok. Beyek et ardik yetzi egin behar die eta esnea saldu edo gazta egin.

NORK BERE ETXEA GOBERNATZEN ZAILA

Joanitik aspaldi ekusi ez zuen soldaduskako lagun batekin egin zuen topo eta ga detu zion:

-Zer moduz bizi haiz?

-Hementxe motel. Besteren etxeak ordu batean sei gobernatuko netikek baina nere urte guzian ari ta ere ez diit gobernatzen.

Plazaola

BATZUENTZAT EGUNE, BESTEENTZAT GABE

Miel Joakin Inaziobarunena argiñe eta kisukillea zen. Ezkondu behar zutenen etxean komona egin behar zela edo kozina ekonomika yarri behar zela beti izaten zuen lana. Gero Miel Joakin eztaietara konbidatzen zuten.

Pareja bat ekusten zuenean Miel Joakinek esaten zion:

–Noiz izan behar do neretzat egune eta zuentzat gabe?

Aleye eztaietakoan bazkari ona beretzat enpo egiteko eta ezkonberrientzat gabe amets gozoak egi bihurtzeko.

Astaitz



Plazaola

ESELAKORTEKO KONTXI ARTE LANETAN



Kontxi harria lantzen.

harrirako zizela, punteroa, bujarda eta maza. Harria leuntzeko 40tik 600erainoko lija erabiltzen dut.

-Erakusketetaza joaten al zara?

-Besteren lanak ikustea asko gustatzen zait baina ez kopiatzeko, ez haien lana jarraitzeko.

-Zein -ISMO gustatzen zaizu artean?

-Impresionismoa eta modernismoa gustatzen zaizkit. Fauvismoa eta kubismoa ez.

-Eselakorte bista ederrak dituen etxaldea da eta etxe haundia gainera. Hemen badaukazu tailerra jartzeko lekua...

-Bai baina horretarako dirua behar da eta erakundeek ez dute laguntzen. Eskatu bai egiten dute, edozein erakusketetan egindako lanak aurkezteko «licencia fiscal» behar da.

«Bakoitza dagoenerako dago. Bakoitza zerbaitetarako yayoa da» dio Kontxik. Eta honekin bukatzen dugu gure yolasaldia.

Astaitz

1996-ko garagarrilak 9. Eguraldi eder. Eselakorteko atalburuan Arrizurietatarren kudoa dago Kontxik harrian egina. Ataria Zubiturren lantegitik erositako 220 kilo harri errektangularra dago Kontxik zizelkatzeko zai.

Eskultura, pintura eta tailatzen aritzen da Kontxi eta gainera Arte Ederrei buruzko klaseak ematen ditu Ibarren, Tolosan eta Donostian.

Eskultura harrian eta zuran egiten du eta pintura oleo eta lapitze deitzen zaiona.

-Zertan inspiratzen zara?

-Landareetan, gauza txikietan... Lana serbituz egiten da eta hori esplikatzeko zaila da.

-Zein pintore gustatzen zaizu?


-Goenaga.

-Eta eskultoreak?

-Basterretxea eta Tapia. Txillida eta Oteiza ez zaizkit gustatzen.

-Zer erraminta erabiltzen dituzu eskulturan?

-Zurerako trintxak, gubiak, eskofinak eta



Kontxi Arrizurieta ekulluko ateetan inspiratzen.

Plazaola

HAU MIXERIA!!!!

Belanziketako harria nauzue. Askok ez duzue nire berri izanzen, ez bainaiz inoiz jeitsi, baina orain herrian bizi den zaharrenak baino askoz urte gehiago dauzkat.

Neronek ere ez dakit zenbat denbora daramadan zuen artean baina mendeetan zehar denetatik ikustea tokatu zait eta aurten zuei nire gorabeherak azaltzea bururatu zait.

Badira 70 bat urte Joxemiel Barandiaran ni ikustera etorri zela ere. Hura bai jakintsua! Ozparrungo Joxakin gidari zuela etorri zen altura hauetara 1920.urtean. Bere ustez Iruinarrria izana naiz noizbait eta nire inguruan bilduko ziren artzainak, nahiz eta ordurako leizezuloa estaltzen jarria izan nintzen.

Eta ni beti pozik egon naiz, zutik nahiz etzanda; beti izan baitut funtzio on bat zuen arbasoen bizimoduan, baita oraingoan ere, nire anai-arrebak bezalaxe.

Mendeetan mendi honen patxadaz gozatu duen honek ikusi du zuen aurreratu beharra. Eta Aritz guztian belatsoa egin zenutenean ere txintik esan gabe egokitu ginen hemengook, zuen mesedetan, nekazari eta aziendaren mesedetan izan baita.

Baina orain oso gauza arraroak ikusi eta entzuten ari naiz.

Hasi zineten itxituekin. Horixe da ba burutazio arraroa! Nola egonen zarete ba hobe? Ezin da!! Ez ote legoke hobeazienda nahi duenean goian eta nahi duenean behean, larreak agintzen dioen bezala?

Orain ere urik gabe gelditzen ari zarete goi honetan. Baina ez bota errurik euriari, ez, ez. Nahikoa dugu denontzat baina gutxi batzuen burugabekeriagatik denak ari zarete izorratzen.

Zergatik daukazue hainbesteazienda mendira bota beharra, itxitaño larre hori txiekia gelditu zaizue eta?

Nekazari-nekazaria apalagoa izan da betidanik eta begirune haundiagoa zion bere aziendari eta inguruneari. Orain, ordea, erdiak ez zarate zinetazko nekazariak, bigarren lana bezala hartu baituzue eta ez zarete zintzo jokatzeko ari.


Gainera enteratu gara (goi honetan ere dena jakiten baita lehenxeago edo beranduxeago) diruaren morroi bihurtzen ari zaretela. Ustezko Europa horretatik ez balitzazue pezetarik etorriko, ekarriko ote zenukete hainbesteazienda honera? ee? nekazari modernitoak?

Azkenekoa, eta zuen hitz harro eta arrotzak entzunez, orain beldur naiz ni ere zuen atzaparretan hartu eta txikitu egin behar ote nauzuen, zuen aziendaren gosea asetzeko.

Zuen egoismoak ez ote du mugarik ezagutzen?

Benetako nekazariak, salba ezazue zeuen burua eta salba gaitzazue geu ere, zuekin eta zuentzat egon gara eta gaude hemen, mendeetan.

Berriz ere, hondatu baino lehen etor zaitezte denak, nekazari eta kaletar, etorri Aritz eta Kornietara, pasea itzazue zuen hankak gure gaintetik, jarri zuen ipurdiak atsedenean, guk gustora hartuko zaituztegu eta.



Plazaola

IZEBAREN TESTAMENTUA

Gure lehengusu txikiak, Jaionek, 16 urte besterik ez ditu eta txiki txikitatik noiznahi etorri izan da gure etxera tartarrera. Aurreko batean hala galdetu zigun serio-serio:

–Aizue, mutilak zergatik jartzen dira hain txoroak nesketaz aritzen direnean?

Momentu hartan etxean geundenok bera baino larriagoak ginen eta nik uste denak ere txikituta gelditu ginela; elkarri begiratu eta ixil-ixilik egon ginen pixka batean. Hiru urteko umeak zerua urdina zergatik den galdetzen duenean ere halaxe gelditzen izanen dira gurasoak.

Nik, berriz, zer esan ez jakin eta galdetu nion:

–Baina nola txoroak? Zer esan nahi duzu horrekin?

–Joe, tia, atzo berean, begira, atera ginen Txokotik eta bi mutil zeuden ateetan. Parean pasatzerakoan ba eta batek bota zion Saioari: «horiek errapeak, horiek, neska, nahi al duzu jeztea...». Joe!! Holakoak esaten dituzte eta tanpantzos gelditzen dira.

–Eta zer egin zuen Saioak?– ahizpak.

–Egin deus ez, baina pedo guztia moztu zitzaion. Izan ere, koadrilan ere ttikiena da eta proportzioan gehiago nabaritzen zaizkio titiak. Baina, joe, hori esatea ere! Beti izan du konplexua gainera.

–Ba!! Ikusi egin behar zerri hori gauza den ardia jezteko. Ikusi ere egin ote du horrek ardirik bertatik? Ba!! Alper-alperrik ari zarete!! Hau mundu mixerablea jarri zai-guna!!– amona bazterretik. Gehienetan despistatu antzean edo egoten da baina orduan zeozerk esnarazi zuen ederki.

Hurrena anaia saltatu zen:

–Horri ez zaio inongo inportantziarik eman behar, hitzak besterik ez dira eta jakin badakigu hitzak egoki erabiltzen oso jende gutxik duen kalitatea dela eta...– han enrroilatu zen, beti bezala gaia alde batera utzita. Esan beharra dago gure anaiak filosofia ikasten duela eta «hitza» hitza bigarren aldiz esaten duen momentutik inork ez dio segitzen diskurtsoa.

Amak moztu zion anaiari, haserre antzean:

–Hara, nik zeozker esanen nion ba!.. Hola utzi?.. Ezta pentsatu ere! Gutxienetik zerrrie esan eta burua haitz tente gainera!.. Zer ba, zu baino gehiago ote dira ba?.. Utzi ez zaie egin behar!.. Hortan, gainera, zuek asko galdu duzue gure aldean... Nik ez dakit, ez dakit zer ikusi behar ote dugun oraindik...

...Eta bakoitzak bere interpretazioa eginen zuen buruan eta hantxe hasi ginen beti bezala denak batera buila batean eta derrepente-pente gure izebak istorio bat kontatu behar zuela esan zuen.

Plazaola

Seko ixildu ginen denak. Guretzat izeba arraroa izan da oso. Gaztetan xeibrekeria asko egina omen da (ez dizkigute kontatu guri e!) eta herrian zomorro xamarra dela esaten da. Orain dela 8 urte senarra hil zitzaion eta geroztik gure etxean bizi da baina beti aparte xamar edo ez dakit ba nola esan, ez dela denak bezalakoa edo...

Horrexegatik gelditu ginen denak ixil-ixilik. Izeba kontuekin!! Fiu!! Fiu!!

Eta holaxe kontatu zigun:

«Ni zure adinakoa nintzenez holaxe hitz egiten zuen mutil bat nuen gustoko. Perugorria deitzen zioten eta zakar-zakarra zen hizketarako, baina niri gustatu egiten zitzaidan, bazuen zerbait begietan hitzekin estali ezin izaten zuena. Beti larru kontutan aritzen zen, batez ere beste mutilekin elkartzen zenean eta, hori bai, beti guk, neskatoak, aditzeko moduan. «Atzo lau aldiz egin nian, hi, hura katxarroa, hura!»—Besteek ere konbertsazioa segitzen zioten eta nesketan inork ez zion kasurik egiten.

Igande batean etxera eramanen ninduela esan zidan eta nik baietz. Koadrilakoek ez joateko esaten zidaten baina ni berarekin joan nintzen.

Etxe atarira ailegatzerakoan eskua non eta begietara zuzendu nintzaion. Gorritu egin zen eta burua makurtu zuen. Nik ez datik zer pasatu zitzaidan baina axuri bat bezalaxe ikusi nuen eta eskua utzi gabe burua altzarazi eta azpaina eskeini nizkion poliki poliki. Ikuitu bat besterik ez zen izan. Dardar batean jarri ginen biok eta orduan begi eder haiek busti egin ziren. Inoiz ikusi ditudan malkorik ederrenak izan ziren, Ikaratua zegoela eta neska batekin inoiz egon gabea zela esan ondoren ziztu batean alde egin zuen.

Niri bihotza petxutik atera nahiean jarri zitzaidan, lehertu beharrean eta hantxe gelditu nintzen puska batean.

Hurrengo hilabete guztian ez zen herrira jeitsi baina gerora gauero elkartzen ginen eta bihotz beroen zorabio gozoak ezagutu genituen elkarrekin.

Eta, hara, nik ez nuen behin ere esan beharrik izan zer egin edo nola jokatu behar zuen baina nire bizitzako hitzik goxoak ere bere ahotik jaso ditut».

Bere kontaketa bukatua izanen zen; altxatu, Jaioneri muxu eman zion eta sukaldetik atera zen besterik deus esan gabe.

Besteok ere hunkituta gelditu ginen, zer esan ez genekiela. Aidean ikutu egin zitekeen hitz bat ateratzeko debekua.


Amonak telebista piztu zuen, anaiak liburuari ekin zion, amak, berriz, patata tortila egin behar zuela eta lanera, ahizpa dutxara zihoala eta Jaione eta ni balkoian eseri ginen ilunabarreko freskuran.

Nire pentsamenduak amonarekin hasi eta belaunaldi ezberdinetako jendea errepassatu zuen eta ohartu nintzen zenbat gauza daukagun elkarri esan eta batez ere elkarrengandik ikasteko.

Handik aurrera gure etxekoengan aldaketa eman zen izebarekiko tratua,

Plazaola

PESTARA ZETORRELA ITTO



Batango presa

Erasoteko errekan dago Batango presa. Lehenago oihal fabrika omen zen. Gero presa hortatik Goikoerrotako zentralerako ura hartu zuten. Lehengo zaharrek kontatzen zituzten lantegi hartako historiak.

Oihal fabrika hortatik gizon batek lapurreta egin zuen. Gero, handik denboran bu-ruan, gizon hori joan zen konfesatzera eta apezak harrituta, klaro klaro, esan zion: «Hamabi dozena maindire ohostu dituzula?». Eta konfesatzeko zai zeuden guziak entzun zio-ten.

Gerrate baten Batango oihal fabrika hori polborategi bihurtu zuten. Eta badakizue gerratetan polbora ixtimazio haundia izakio eta lapurrak idi parearekin joan ziren polbora ohostutzera. Gurdia kargatu eta abitu ziren eta ibilaldi bat egin zutenean kontura-tu ziren gurdiak zuloa zuela eta polbora galduz zizela. «Polbora arrasto hortatik galdu-ko gattok», pentsatu zuten. Zer eginen eta bidean galdutako polbora horri su eman zioten. Azkar iritsi zen sua gurdiraino eta, boom!! gurdi zuren printzak alde guzietara eta idien haragi puskak gaztain adarretatik zintzilik.

Baina lehengo mendeetako kontu zaharrak utzi eta goazen bertagoko gertakari tris-te bat kontatzera.

1.933-ko abuztuaren 13a zen, igandea. Leitzeko pesta hirugarren hartan bero izuga-rria omen zen.

Plazaola

Afrikan soldaduska egin ondoren Uitziko Goikoetxean zegoen morroi Gorrittikiko Etxeberriko Jose Fermin Goikoetxea Balda, 23 urteko mutila.

Uitziko etxe hartako bi motikorekin, Manuel eta Julianekin, abiatu zen Leitzera oinez pestara. Esan bezala bero ikaragarria eta freskatzeko Batango presan sartu zen Jose Fermin. Soldaduskan igeritan zerbait ikasi omen zuen baina presa hartan alde batetik lohi haundia eta bestetik urjoan bizkorra kanalera eta ezin zen atera. Eskua luzatzen omen zien motikoei baina hauek deus ezin egin eta itto egin zen.

Gorrittira jo dot berri gehiagoren bila eta suertea izandu dot. Atarian aurrena ikusi doten bati galdetu diot ittotako honen berri eta hara zer dion 85 urteko Martin Baldak:

«Egun hartan Leitzeko plazan nengoen eta han esan zidaten itto zela. Jose Fermin nere lehen-gusue zen eta ni etorri nintzen oinez familiari abisatzera. Ozparrunen konketa bat esne arraultze gorringoarekin hartu nuen malda gora hasterako. Etxeberrikoei ez nien esan hil zenik, baizik oso gaizki zela. Jose Fermi-nen atte eta anaie joan ziren mendiz Leitzera».

Gero Etxeberrira joan naiz eta oso harrera ona egin didate. Ittotako honen arreba Zeziliak eman dit fotografie eta zera dio:

«Garai hartan ez zen Gorrittin telefonorik ezta kamiorik eta Martin etorri zitzaigun esanez oso gaizki zela baina ez zigun esan hil zenik. Gure atte eta anie joan ziren mendiz Leitzera eta Kordobanen esan omen zioan itto zela. Iragitten ongi zekien Orioko batek atera zuen putzutik. Leitzeko Gogortzaundikoak gure ahaideak dira gutxi-askoa eta haien panteonean enterratu giñun».

Igeritan ongi zekien oriotar hori Agustin Bigeraren koñadoaren laguna omen zen Leitzera pestara etorria.

Jose Ferminekin etorri ziren motiko horietako bat, Manuel, orain dela urte mordoska Leitzeko fabrikan bobinak harrapatuta hil zen.



Jose Fermin Goikoetxea Marruekoson soldadu. Gero Batanen itto zen.

Plazaola

AMAZABALKO GURUTZEAK

- HARRIZKO BI GURUTZE (1900)

Leitzar askori egin diot gurutze pare honen galdea, baina, batek edo bestek baizik ez dit argitu, z gatik paratuak izan ziren. Artxiboetara jo aurretik, aitona **Benito «Luxea»** gandik jaso nuen aurreneko gibidea: *“Orik bik Aizmalkorren illek zien. Ordun Aizmalkorren mina ari zun, da mendik azpin arrapate ill da, an gurutzea yartzeik etzegoala ta, Amazabalen yarri men zittuen bi gurutze arrizko. Basomen eotten zen morroi, Jose «Guraso» esaten giñion bat, ta aren anaie zen Azpiroz ori. Zentraleko Manuel aman anaiek zien orik”.*

Sorobarrengo attuna **Joxantonio Sukuntza** zenak berriz, hara zer esan zidan: *“Orik Samiel eunen ill omen zien. Bat, emen Martxenekoa zen, gero Basomenen bizittu zen aren familie. Bestea eztakitt nong zen. Miel emen tzun izena biñipiñ. Martxenen bizi zen orrek, bezperan lanetik etorri tte, amak esan em zion: «Samiel eune´ek eta, biar yoan beak mezata, e!». Ta, semek ezetz: «Igoal dio Samiel eune izanda nek lanea yoan beat!». Biamonen yoan emen da lanea mutill ori tte, mendik azpin arrapatute bertan ill, lau ta bik!”*



Sorobarrengo aitona Joxantonio eta amuna Mikela, etxeko atarian. Zenbat holako kontu hunkigarri, jakintsu xaharron gogoan!

que falleció a consecuencia de axfisia y lesiones recibidas, pues fue aplastado por las piedras. (...) Era hijo de Jose Fermin Azpiroz y Maria Andres Huici, en cuya compañía habitaba en esta villa, en el Cuartel del Este N° 46. (...)”

Gauzak horrela, Sorobarrengo aitona **Joxantonio Sukuntzak** esana, ez dator oso oker. **San Mielak** agorraren 29an izaten dira, eta 24ean hila zen **Miel Tomas**, eta bere lankide **Miel Joakin** ere bai. Baliteke halare, amak seme-ari, San Miel egunean, bere egun haundian, lanak utzita mezetara etortzeko erregutu eta semeak ukatu izatea; eta bien bitartean mendiak azpian harrapatu eta mutila hil izatea. Hartara luke zentzua, inolaz izatekotan, Sorobarren- go aitona fedekontu horrek. Amaren erregua ukatzea- gatik, eta bere egun haundian, mezara gabe, lanean segitzeko asmoa izateagatik, Jainkoaren kastiguz mendiak azpian harrapatua hil zela alegia mutila, hori adierazi nahi zidan aitona.

Holako sineskera kontu apaingarriak maiz txertatzen dira herri literaturan. (Konparaziora, kontu beratsua esaten da Berastegin, Bizkoako minatan beren zaldiarekin mendiak azpian harrapatu zituen zazpi meatzariei buruz: Santa Barbara eguna meatzarien zaindari izan eta halare lan egiteagatik hil zirela Jainkoaren kastiguz)

Aitonan esanak eta harrian zizelkatutako dituek gogoan harturik, artxibora jo dut. Miel Tomasaren heriotz agiria dator aurrena juzkaduko liburuan: *“En la villa de Leiza a las seis y media a la tarde del día 24 de Septiembre de 1900 años Don José Ramón Zabaleta, Juez Municipal, y Do. Juan Miguel Lasarte, Secretario, compareció Juan Barriola Zabaleta natural de esta villa, de 21 años de edad, domiciliado en este Cuartel del Norte N° 19, manifestando que a las cinco y media de esta tarde ha habido un desprendimiento de piedra y tierra en la mina denominada «La Providencia» y ha sepultado a Miguel Tomas Azpiroz, de 26 años de edad, Labrador, operario en la actualidad de la citada mina cuyo cadaver fue extraído el día siguiente y practicada la autopsia el día 26 resultó*



Plazaola

Alderdi horrek ordea, lilura punttu bat erantsi baizik ez dio egiten gertakariari. Izanez ere, hildako biak **Miel** ziren izenez, eta biak **San Miel** eguna ospatu gabe uzteko asmoa zuketean. Lanean ari zireneko meategia ere, hain justu «**La Providencia**». Eta hari muttur horitxek lotzea aski, orduko jendearen irudimena sorgintzeko.

Sorobarrengo aitona esan bezala, **Martxene** bizi zen hildakoa, 1900ko udal erroldan ere hantxe ageri da bere familia, eta baita 1896ko udal erroldan ere:

Azpiroz Zabaleta José Fermín, 54 años, casado, labrador

Azpiroz Huici Miguel Tomás, 21 años, soltero


Azpiroz Huici Antonio, 18 años

Azpiroz Huici Josefa Antonia, 16 años

Azpiroz Huici Bárbara, 12 años

Azpiroz Huici José, 10 años

Azpiroz Huici Valentina, 7 años.



Martxene. Hementxe bizi zen Miel Tomas Azpiroz bere familiarekin, Aizmalkorreko minazuloan mendiak azpian harrapatu eta hil zenean

Errolda hori eginda lau urtera hilen zen mutila, senidetan zaharrena, bizitzak sasoirik onena eskeintzen zion garaian. Bataioko ur santuak hartzekoan, 1874ko martxoaren 7an, **Miguel Ramón** para zioten izena, eta heriotzeko paperean ere halaxe ageri da elizako artxiboan; eztakit nondik nora bihurtu izanen zen gero **Ramon** hori **Tomas**. Gurasoak etxe batetik bestera maizter ibiliak zirenez, ezin jakin segurantziz zein etxetan jaioa zen, baina haren iloba **Manuel Intxaurreko Zentralekoak** esan didanez, **Peustenen** jaioa zela esaten omen zuen aitona Joxe Ferminiek, Manuelek 13 urte zituela **Basomenen** hil zenak.

Haren hurrengo senidea ere, Antonio, **Txubitane**ko aitona zena, 1876an **Peustenen** jaioa omen zen, eta **Astarlan** bizi zela **Txubitanera** morroi joana, hala esan dit behintzat **Pepita Zabaletak**. Hirugarren senidea, **Josefa Antonia**, hirutan hogeitaz urtez **Basomeneko** herrian **Don Miel Etxarri** kanonigo sonatuaren neska izandua, 1878an **Yoanabordan** jaioa zuten. Laugarren senidea ere, **Barbara**, Manuel Zentralekoaren ama zena, 1881ean **Yoanabordan** jaioa zen. Boskarren senidea, **Jose «Guraso»** esaten ziotena, 1883ko agorraren 13an **Zapatenen** jaioa; eta 1884ko herri erroldan ere, hantxe ageri da famili guzia. Boskarren senidea, **Valentina**, 1887ko azaroaren 3an **Astibigoikoan** jaioa zen; eta seni-



[Benito Luxea eta Manuel Zentralekoa. Memori haundiko bi aitonotxek argitu dizkidate Aizmalkorren hildako bi mutilen kontuak.]

derik gaztena ere bai, **Tomas**, 1890eko maiatzaren 31n **Astibigoikoan** jaio eta handik urte betera bertan hila.

Mendiak azpian harrapatu zuen **Miel Tomas** haren aita Jose Fermin Azpiroz, **Etxeberriko** aitona Juan Bautista, **Aliñeko Miel Antonio** zena, eta haien senide propioa omen zen. Emaztea berriz, **M^a Andres Huici Lasarte**, aresoarra zuen sortzez, gero gurasoekin Leitzara etorri, eta bestetan beste, urte frankon **Miltxonbordan** bizitua.

Aizmalkorreko minazuloan lurra azpian harrapatutako beste laguna, **Miel Joakin Iturrarte**, 1875eko apirilaren 15ean **Gazpilloaundi** edo **Gazpillozar** edo **Gizpilloagerre** izeneko bordan jaioa zen, eta hantxe ageri da



Plazaola

oraindik bere familiarekin 1884ko udal erroldan, bederatzirte besterik ez zituela. Hurrena, 1896ko erroldan, bere familiarekin **Txatxunen** (edo gaur **Joseaundine** esaten diogun etxean) azaltzen zaigu 21 urte zituela. Handik lau urtera hil zen, bere aita alargunduarekin **Sorobeikoan** bizi zela. Haratx zer dioen harri heriotz agiriak udalean:

“...a las cinco y media de esta tarde ha habido un desprendimiento de piedra y tierra en la mina «Providencia», y ha sepultado a Miguel Joaquin Iturrarte, natural de esta villa, de 25 años de edad, labrador operario en la actualidad en la citada mina, cuyo cadáver fue extraído el día siguiente y practicado autopsia el día 26 resultó que falleció a consecuencia de axfisia. (...) era hijo de Ignacio Iturrarte viudo Josefa Antonia Gogorza, ya muerta y habitaba en compañía de su padre en la Calle de San Miguel Nº 40”

Harekin batera hildako lagunaren heriotz agiriaren ondotik dator goiko hori, eta Udaleko datuak zuzentzen badira, **Sorobeikoan** bizi zen **Miel Joakin** hil zenean; numero hori (San Miguel 40) etxe harek baitzen garai hartan. Honatx nola ageri den familia, Miel Joakin hil ondoren egindako udal erroldan Sorobeikoan:

- Ignacio Iturrarte Zabaleta, 69 años, viudo, labrador arrendatario
- Juan Iturrarte Gogorza, 37 años, hijo, soltero,
- Eusebia Iturrarte Gogorza, 27 años, hija, soltera
- Eusebia Goicoechea Iturrarte, 7 años, nieta natural de Goizueta, reside hace 4 años en Leiza.



Sorobeikoa. Hementxe bizi zen Miel Joakin Iturrarte, mendiak azpian harrapatu eta Aizmalkorreko minazuloan 1900ean hil zenean. (Arg.: J.M. Elozegi).

Zortzi senide ziren denak: zaharrena **Marina**: 1852ko azaroaren 7an jaioa, **Joakina**, **Miel Antonio**, **Juan Aniazio**, **Kristina**, **Euxebi**, **Joxakin**, eta gaztena **Aizmalkorren** mendiak azpian harrapatu zuen **Miel Joakin** bera. Honatx jaiotzako agiriak elizan dakazkin datu batzuk:

Aitaren aldeko aitona amonak: Joakin eta Marina Zabaleta, ordurako hilak. Amaren aldeko aitona amonak: Joxemari eta Joakina Zabaleta, ordurako hilak baita. Pontera jaso zutenak: Miel Antonio Goikoetxea eta Joakina Iturrarte. Aitaren jaiotzako paperak (1831 Otsail - 10) dioenez, aitona amonak, Joakin eta Marina Zabaleta, «dueños de **Juanzar beicoa**» zituen, eta hauen aurrekoak berriz: «dueños ancianos de la misma».

Leitzako aitona amonek gogoan izanen dute **Xerapio** nor zen, (harentxen seme **Joxe Iturrarte** «**Xerapio**» izandu zitzaigun joan den urteko San Tiburtziotako Ameriketatik bixitan), ba Xerapio harentxen osaba titik zen Aizmalkorreko minatan hildako Miel Joakin zena.

Bi mutilak hil zirelako berri **Joan Barriolak** ematen zuten udalean, Pastaingo attuna **Joanen** anai ordekoaldea edo bestela esan, **Pastain Ziztulariaren** semeirik zaharrena. Bazuen gertaera izugarriaren berri emateko mota bat.

Burik aski, bazuen motiburik aski. Haratx nola kontatu zidan haren iloba **Mikela Sukuntza** amona **Iratxegiko** izunduak, Joanen begiek bertatik bertara ikusitako gertakari beltza:

*“Gure osaba **Joan Gazpillokoan** adintsukoak izan bear tzuen il zien mutill orik bik, eta **Leitzalderen** arditan zebillela, andik pasatzea tokatute aikin yolasen gelditu emen tzen, da gorea kanpotik beiduta ak minazuloan ben lanen seittuko zuen, da derrepente pruaaa! mendie gañea erori te akabo bi mutillak. Josuuus...! Erotu bear zula gure **Joanek**! Bi mutillei beide beide zegola, bere artan artu dazkio mendetik azpin de, deus eziñ eiñ! Karraxike etorri emen zetzioan etxera, **Pastaiñe**, ya erotun. Ta etxekoak denak apuretuk: «Ya ze pasatzen zetzioan, ba?» . Ta, ola ta ola: elkarrekin yolasen zeudela mendetik azpian arrapatute nola lertu zittun bi mutillek!! Jossuus! An emen tzien karraxik eta nearrak! Gero, denbor askoan oso gaizki ibillie zuen **Joan Pastaingoa**. Ez aztutzen ekusittekoea, ta ya burutik iñen ibillie zuen gizajoa”.*

Plazaola

Harritu egiten du bat, harri koskor pare batek horrenbeste sentimentu gorde lezakela pentsatze hut-sak. Esanera den bezala: «harriak negar egin lezake». Jakin egin behar animaren betak bilatzen. Horra hor bi anima, harriaren bihotz noble zaharretik hizketan.

Aurreneko aldiz 1900ean Amazabalko bide ondoan paratu zirenetik, aldaketa franko ikusiak dira inguruan. Besteak beste, Leitzatik Doneztebe aldera egindako kamio berria 1906 aldean; hurrena 1941ko otsaileko haizeteak inguruko txopo guziak bota, herriak zura eta lurra saldu eta, 1942an Lazaro Arraratsek egin zuen **Albergea**. Berriz atzera, 1965 aldetik honuntz Amazabalko eskolagune osoa: **Eskola Komarkala, Lanbide Eskola, Amazabal frontoia, Nekazari Eskola**, orain gutxi berritu eta **Haur Eskola** bihurtu dutena. Metro batzuk goitibehiti, hor irauñ dute halare, harrizko bi gurutzeek. Geroztik, haruntz honuntz, zenbat jenderen eta pasadizoren lekuko izan ote dira?

Hortxe daude oraindik, nahi dituenak ikusi, Nekazari Eskola zeneko sarreran, ate haundiaren alde banatara, hargainean paratuak. Atzenaldera hor ikusten ditut haurrak, gurasoak, maisu maistrak, inguruan bildurik tartarrean! Eta bi oroitarriak hortxe lotsaturik: «Ez ote du inork sumatuko gure pena?». «Guraso ta irakasle txarrok sekulen ez ote die gure oñaze muturren bat ume inozenteon biotzean txertatuko?». «Ez ote die gutaz akordatuko 2000garren ditxosozko horretan?». Auskalo.

Baina, harrizko bi gurutze horiek bazuten ondoan beste gurutze historiko eder bat, **Amazabalko Eskolagunea** sortu zenean kendu eta leitzar asko penatan utzi zuena.

- AMAZABALKO GURUTZE ZAHARRA.

Izatez, «*in terminus*», edo gerora «*crux de término*» edo «*dermio gurutze*» deitzen ziren haietakoa omen zen; kristau legezko muga zaharrak markatzen zituena. Herri askotan izaten ziren, eta dira, honelako gurutzeak, sarreran eta atereran. Baina, kristandade aurreko usuario paganoan ere ba omen ziren honelako gurutzeak, herri barrena pizti eta etsaiengandik zaintzeko ezarriak.


Hara zer esaten duen **Dolores Baleztenak**, «*Recuerdos y reminiscencias paganas*» deituriko idazlanean¹, hain zuzen ere Amazabalko gurutze hartaz ari delarik: «*La cruz de término tiene ascendencia pagana. Ellos ponían en el termino de sus poblados una columna en honor al dios Término, para que los protegiera. Sobre ella colocaron los cristianos la cruz con la misma intención. Leiza tiene la suya, denominada cruz de Amazabal*».

Ez jakin sineste pagano zaharrak jasotzen zuen Leitzakoak, baina gerozkoan herri barrengo bizimodu katolikoa hark zaintzen zuela bai. Han bereizten baitziren «*intramuros*» eta «*extramuros*» delakoak. Horrexegatik: eskazaleak, arrotzak, ijitoak, eta bestelako sesio armatzaile eta gaizkile guziak, **Amazabalko Gurutze** hartaz

hartaz haruntz bidaliko zituen inguru-zaiak. Hartaz honuzkoa baitzen kristau legezko herritarren muga. Hartaz haruntz uxatuko zen berriz, oso katoliko portatzen etzen jendaje guzia.




Joan Barriola Pastaingoa, bere erreginarekin. Honetxekin hizketan ari zela, estali omen zuen lurra mutil pareta Aizmalkorren



Luis Fagoagak 1964 aldean egina. Horra non ageri den Amazabalko Gurutze Zaharra.

Plazaola

Unaineko Luis Lasartek, herriko sekretario izanduak, eta aita Antonio eta aitona Juan Miel ere ha izanduak zituenak, esan dit, gurutze hau garai batean Gipuzko aldera jarria izaten ote zen, nonbait **A soarte** aldeko azpi horretan, hala aditu izandu duela etxean. Baliteke hala izatea, izan ere mende askore buruan, Gipuzkoa aldetik izan baititu etsairik haundienak Leitzak. Baina, joan den mende bukaeratik beh nipein Amazabalen ezagutu omen du jendeak. **Bernabe** Azpirozek, **Praxku** «**Erreroa**» zuen aita, eta har esaten omen zuen, beti Amazabalen ezagutu zuela, eta haren gogoenean halaxe izaten zirela gurutzeare burnizko armadurak ere. Lehenagoko harotzen batek eginak beharko zuten, beraz.



Amazabalko Gurutze Zaharraren burnizko harmaduraren irudia, galdutako puskek hornitu eta berriz lehengo lekuan paratzeko asmoan 1964 aldean Luis Fagoagak egina.

rri. Or euki pixko baten, ta aitagurea ta bear zena errezatu, ta gure etxera ekartzen zittuen gero, **Altzateko errire**. Jainkoak bestek eztaki gure etxetik zenbat gorputz pasatu izaan den. **Gazteluneko Batiste**, ilde Iratixabalen arrapatu zuena, ta aren atte zenare gure etxera ekarri zittuen. **Yoaneneko attuna** Anizeto, **Bilartako attuna** Praxku ta amunare bai; **Yoanabordako attuna** Tomas,... ta ola asko. Gero asi zien, gorputzek komentureño eramatten."

Gero, zeinek kenduko eta?, herrian ziren katolikenak, tradiziozaleenak eta jakitunenak kendu alajainkoa herrian zen gurutzerik ederrena, zaharrena eta katolikoena! Sinesteak ere lanak ematen ditu. Zeinak eta, «**Amazabal**» izeneko elkarte katoliko santuak kendu **Amazabalko gurutzea**! Oraindik holakorik!

Hara zer zion Latxagak, **LEITZE TA BERE EUSKAL NORTASUNA** izeneko artikuluan²: "Erriaren zabaltzeari buruz bear da urbanismo lana egin. Ez eman askatasun osoa etxegillei. Oietatik asko

Mende honen hasieran jaiotako leitzar asko kontatu didate, umetan gurutze haren gainera igo er jiraka liluratuak nola ibiltzen ziren, pozez txoratze menderen mendetako siniste zahar baten ardatzean j raka zebiltzala batere jakin gabe. Herriko mutilen er alderdi hartako neskaten maitasun kontuak er Amazabalko gurutze hartan erabakitzen omen zitu: ten askok. Baina, umetako liluraren eta gaztetak amodio kontuen testigu ezik, hamaika heriotzen te tigu ere izandua zen gurutze eder hura.

Honatx, besteak beste, Sorobarrengo attuna **Jaxantxonio Sukuntzak** esana: "Amazabalen bazen gurutze aundi bet, burnizkoa ta elegantea oso. Eztakit ze izioan. Emengo gorputzek, eliz biden zizenak, dena an gelditzen zien. **Domingobordatik** asitte, **Gorritzaran** aldetik sartzen zien gorputz guzik antxe gelditze zien, ta elizatik gurutzeekin etorri te abadek bedeinkat zioa eman ondoren eramatten zen beti gorputze. Ibil emen zien bille, baño ez emen zuen billatu noiz ta nol yarrie zen gurutze ure".

Gazte denbora guzian, gurutze hartatik bertara **Altzateko herrian** bizi izandako **Maria Olaetxea Sa gastibeltza** amonak ere, halaxe esan dit: "Len itten zintuen, gorputz guzik Amazabalko gurutze ortara eka




Maria Olaetxea, Alzateko izandua. Hamaika kontu zahar dakien amona.

Plazaola

estetika aldetik ezjakin utsak dira. Batzuentzat dirua bakarrik txapeldun. **Amazabal** auzoak bear du apainketa jatorra. Baztertuta dagon **burnizko Gurutze eder** arrek bear luke toki berexia”.

Honako haxe idazten zuen, handik hurrena, **Juanita Azpiroz** Etxeberriko izanduak, 1989ko abenduaren 17ko «**La Verdad**» aldizkari katolikoan, «**Leitzetik**» izeneko artikulu motx batean, gurutze eder hari buruz: “Gure erri maite ontan berritze asko dao. Badiduri baztartue zegoela, baño ez. Eliz estalie, aiñ bearezkoa, eta beste konponketa batzuekin, ongi geldituko da. «**Santa Krutz Ermitte**», oso lan ederra, aiñ bearezkoa au ere. Aiñ gogoz an lan egin duenari, eroriko ez bazen, eskerrikasko eta zorionak! Euskaldun fededun!... Bai nik uste, ala bear. Baño... beste Gurutze baten utse dao. Amazabalko burni ederrezko gurutzea non ote dao? Ango ikastetxe, frontona eta beste lanak ongi daude, baño zergatik kendu **Amazabalko gurutzea**? Ez al zen tokirik Amazabalen? Eskertuko giñuke leitzarrok ure bere tokin ikustea, ure kenduazi zunak badaki zer egiñ. Erriaren edergarri eta denan irakasle denari bere tokie Amazabalen. Eskerrikasko.”



Joanita Azpiroz, Etxeberriko izandua, bere ilobarekin. Amazabalko gurutze zaharra kentzeak, beste leitzar askori bezala, pena handia eman omen zion.

Azkenean ez dakit zer egin zitzaion gurutze eder hari. Oroitzen naiz nola egondu zen denbora askoan **Goiko Errotako** ataurrean, **Luis Fagoagak** bere museorako lekutua. Handik eztakit nora eginen zuen hanka. Ez gurutze eta ez museo gelditu zirela bai leitzarrak. Orain gutxi jakin dut berriz, Lanbide Eskolan dagoela gurutzea, joan den aspaldian hautsia zuen burnizko hegala konpontzera ekarria. Mereziko luke, gurutze santuaren sinalea eginez konpundu eta, betiko lekutsuan dotore paratzeak. Hartara **Gurutze Historiko** ederra irabaziko bailuke Leitzak; eta behar bada, nork esan?, hain desegina dagoen herri barrengo gizatasuna ere hobeki gordeko bailitzake, haren gerizean.

Lehen esan dut, **Amazabalko Dermio Gurutze** hartatik harantz bidaltzen zutela herri barrengo arrotz, gaizkile, mozkor, sesio sortzaile, eskazale, koko, eta antzeko jendaje guzia, eta joan den hogeitabost urte honetan, hanka bat barren bestea kanpo, gurutze zahar haren muga arriskutsuetan nabilenez, nik ere hobeko dut ixiltzea, baezpare.

J. Escariote de Campoerri

¹ Navarra, temas de cultura popular, 272 liburukia, 9 orria.



² Nafarroa, Euskal Arrobia, 62 orrian. Donostia, Edili, 1973.

Plazaola

PLAZAOLAREN ANTOLATZAILEEN OHARRA

1. PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEK EZ DUTE ZERTAN ADOS EGON BEHAR, BERTAN AGERTZEN DIREN IRITZI DESBERDINETAKO IDAZKIEKIN.
2. LANAK BIDALTZEN DITUZTENEK BEREN IZENAK JAKINARAZI BEHAR DIE ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEI, SOR DAITEZKEEN ARAZO LEGALAZ IDAZKIEN EGILEEN ERANTZUNKIZUNA IZANEN DIRRELARIK.

Plazaola



ITURGINTZA
GAZTELU, S.C.L.

- INSTALACIONES DE CALEFACCION
- FONTANERIA EN GENERAL Y GAS

Elgoien, 32
Tel. 51 00 86
Fax 61 08 56

31880 LEITZA (Navarra)

LEITZARRA TABERNA

IREKITA GOIZEKO 7,30ETATIK
Ongi ibili kanpotarrak eta ongi pasa bertakoak

Tel. 51 03 52 • LEITZA



TRANSPORTES

TALLER DE CANTERIA • TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL • REVESTIMIENTOS DE FECHADAS DE PIEDRA • ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS • FOGONES "ESTILO VASCO"
• CRUCES Y LAPIDAS • CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS EN PIEDRA

Les desea Felices Fiestas

Tels. Taller 51 04 47 y Domicilio 51 01 11

LEITZA (Navarra)

OIALDE TABERNA

- BAZKARIAK, BAZKALAUURREKOAK ETA OTARTEKOAK
- KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 00 77

LEITZA

ETXE - TRESNAK

ARGI - INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO

RADIO eta TELEBISTEN KONPONKETA
TELEBISTARAKO ANTENA eta PARABOLIKA JARTZEA
ELECTRICIDAD INDUSTRIAL
T. V. - HIFI - VIDEO

REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V. Y PARABOLICAS

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA

OIHANA

JANARIDENDA (COALIMENT)

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 28 • LEITZA

"GAZTETXO"

Goxotegi eta jolas lekua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

PAKO SARALEGI



Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 90 LEITZA

PLAZA AUTOESKOLA

ASEGUROAK ETA GESTORIE

Pesta onak pasa ditzaizuela

Huarte Gotzaia, 8 LEITZA

Tel. 51 03 38

LEITZELARREA AROSZTEGIA

Herrería, carpintería metálica
Elbarren, n.º 58 Tel. 51 05 98
31880 LEITZA (Navarra)

Jai zoriontsuak opa dizkizue

GARCIARENA ARRANDEGIA

Eguneko arraiak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 72 • Tel. 51 05 90 • LEITZA

BIKOITZ TABERNA

PINTXOAK • OTARTEKOAK
PASTELAK • TARTAK
ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU

Elbarren, 16 – Tel. 51 00 72 – LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

EROSLE

SUPERMERKATUA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 00 36 LEITZA

J. A. URKIOLA

Harategia, Urdaitegia
Idi haragitan eta hemengo Zekorretan
espezialitatea

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 67 LEITZA

MADRILADORA LEIZA, S. COOP. LTDA.



Eluseder Pol. Ind. – Tels. 51 06 00 - 51 06 01

Fax 51 06 02 – ARESO

Jai zoriontsuak opa dizkizue

TXOKO TABERNA

- Pintxoak Giro alaia
- Otartekoak
- Kaxuelak

Gauetan "Karaoke"

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 27 LEITZA



FOTO ULAZIA

Sta: Cruz, 43

Urbanización Zizur

Tel. 18 33 01

Jai zoriontsuak opa dizkizue



ADUR
TABERNA

- Otartekoak
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
 - Olagarroa
 - Grabak
 - Ziztorra sagardotan...

Elbarren, 16
Tel. 61 08 64 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Patxi Arrazola LEITZA



kirolak

EHIZA, ARRANTZA, KIROLAK eta BIZIKLETAK
(TAILERRA)

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

Manuel Lasarte, 5 LEITZA

Tel. 61 09 13



Elbarren, 15

Tel. 51 01 46

Fax 51 01 46

LEITZA

PRENTSA • TESTU LIBURUAK • OPARIAK
PLASTIFIKATZEAK • ENKUADERNATZEAK
INPRENTA LANAK • FOTOKOPIAK

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

GASOLINERA DE LEIZA

VDA. DE RAFAEL MUGICA

Teléfono 51 00 57

LANDA TABERNA



Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 59 Elgoien kalea, 15

CONSTRUCCIONES SAGASTIBELTZA Y ARTOLA

Era guzitako igeltsero lanak

Elbarren 86, 2.º ezker

Tel. 51 02 65 - 61 07 24 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

BIOK JANTZIAK

Gizonezko, Emakume eta Umeentzako
jantziak

Elbarren, 32 • LEITZA
Tels. 51 05 58 - 51 04 77

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAIKINTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telf-ak. 51 02 02 y 51 03 74
LEITZA

TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta
labean egindako lehorketa, kolpe haundien
konponketa (bankada).

Leitze-larreko errepidean LEITZA
Tels. 51 04 60 - 51 05 58 (Etxekoa)

JESUS BULDAIN

Carnicería y Charcutería
Tratante de ganado

Teléfono 51 01 67

KOXME ZABALETA

Ultramarinos

Pesta onak opa dizkizuegu

Tel. 51 03 06 LEITZA

JOSE IGNACIO ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia
Etxeko Txistorra

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 03 77 LEITZA
Tel. 68 30 42 BERASTEGI

ORAIN ELKARTEA

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

herritar eta bisitari guziei

LEITZA

Peluquería Eguzkii

Asun y Lidia

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 34 - 1.º A
Tel. 61 06 49 LEITZA (Navarra)

KINIELAK, BONOLOTOA, PRIMITIBA




MATERIAL
DEPORTIVO
KIROL TRESNAK
LEITZA
Tel. 51 00 87

GARAGE LEITZA

Amazabal, 29 Kalea
Klase guztietako berebil konponketak eta
erosi salduketak Peugeot-Talbot agentzia

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 66 LEITZA



Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoyen, 6
Tel. 51 03 75
LEITZA

ZABALETA OKINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 68 LEITZA

TALLERES LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de automóviles,
maquinaria agrícola, bicicletas y motos.

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Gorritzaran, 41 • Tel. 51 04 04
LEITZA

ALDI LEITZA

C/. Elbarrén, 20
31880 LEITZA (Navarra)
C.I.F. E-31515117

Wanpac

VANPAC, S.A.

(Vasco Navarra de Papel y Cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tolosako errepidea, 2Km-an
Tel. 51 01 61 LEITZA



TORREA ETXEA

Tfnoa.: 61 09 09

GOSARI, BAZKARI,
ETA AFARI, EDERRAK

GIMNASIO



GIMNASILEKU OSANE

- Sauna • Gimnasia mantenimiento
- Gimnasia correctiva • Aparatos musculación • Recuperaciones

Mens sana in corpore sano

Elgoyen, 4 LEITZA

AZPIROZ ETXEA JANTZI DENDA

Jai zoriontsuak opa dizkizue


Tel. 51 02 46 LEITZA

GREGORIO SAGASTIBELZA

Constructor y Albañilería
en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 00 59 LEITZA



EUSKAL MARTXA
ETA BORROKA
ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE

LOREA

Ileapaindegia
eta Solarium-a

*Jai zoriontsuak opa
dizkizue*

Tel.: 610907 - LEITZA

JOSE MARIA ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 82 • LEITZA

KORNIETA ELKARTEAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

EMBALAJES ERVITI, S.L. ZERRATEGI MEKANIKOA

Jai zoriontsuak opa dizkizue


Tel. 55 00 08 LEITZA

MAPFRE

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 99 LEITZA



Sucesiones de
José GÓMEZ, S.L.

OIHALAK · TEJIDOS

C/. Elgoien, 30 • Tel. 51 01 30 • 31880 LEITZA



URTO KARROZERIA

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

Jesús Azurmendi Jauregi

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Kamineros etxea BERASTEGI

Telf-ak. (943) 68 32 43 y (948) 61 06 64

Arrandegia

KAIA

Yone eta Inma



C/. Elgoyen, 20 • Tel. 61 07 33 • LEITZA (Navarra)

MERTZERIA DENONTZAT

Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa

Pesta onak pasa ditzazuela

Tel. 51 05 61 • LEITZA

PILI

Janari denda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Patxi Arrazola, 9 • Tel. 51 05 63 • LEITZA

ASTIZ ZURGINDEGIA, S.L.

Sukaldeko eta bainuko altzariak

Pesta onak opa dizkizue

Tel. 51 02 85 LEITZA

FOTO
MUGICA

ARGAZKIAK

C/ Obispo Huarte
Tel. 51 04 40
LEIZA

VIDEOS



TALLERES DENAUTO, S. L.

REPARACION CHAPA - PINTURA - MECANICA - ELECTRICIDAD
SERVICIO GRUA



Polígono Industrial Eluseder • Teléfono y Fax (948) 51 06 10
Teléfono Móvil: 908 - 77 75 59 (Permanente)
31876 ARESO (Navarra)

**CARLOS
SAGASTIBELTZA
VILLANUEVA**

ARQUITECTO TECNICO

Proyectos • Presupuestos • Reformas •
Control de Obras • Mediciones de terrenos
• etc.

TELEFONOS

Oficina: 61 06 77
Domicilio: 51 03 90
Movil: (908) 17 96 60



Gustua baduzu, hememtxe gaituzu

Alto de Leiza • 31877 LEITZA (Navarra)
Tel. 948-51 01 25 • Fax 948-61 09 65

Cocina selecta – Comidas de empresa
Bodas y banquetes – Comuniones y bautizos
Amplios comedores – Salones
Amplio parking – Piscina

"GARBI"

Garbigaidenda
Usaidenda eta
Jostailudenda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 01 73

LIZARRAGA

HARATEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 83

ARAKINDEGIA

AURTENGO JAIETAN EZBEHARREZ ITXITA
EGONGO DA BARKATU ERAGOZPENAK
JATETXEA

Tel. 51 00 52

Jai zoriontsuak opa dizkizue



LIBURUDENDA

TESTOLIBURUAK ETA ESKOLIARAKO GAIAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 28

Tel. 51 04 05

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 1 LEITZA

GAZTAÑAGA TABERNA

Otartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 61 07 08

CONSTRUCCIONES

ANIBAL OLIVEIRA

Les desea Felices Fiestas

C/. Amazábal, 17 - 3.º B

Tfn.: 51 05 16

LEITZA (NAVARRA)

PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan espezialitatea

Urdaitegia

Tel. 51 01 64

Jai zoriontsuak opa dizkizue

HERBODIETETICA BELARRA

Janari denda

Elbarren, 35 • Tel. 51 01 92

LEITZA

Jai zoriontsuak, opa dizkizue, zorionak

CHAPA-PINTURA-KARROZERIAK

GURIA

(P. KALDERON)

"Reparación de vehículos. Pintado en cabina, secado al horno". Pinturas nacaradas-perladas.

Jai zoriontsuak opa dizkizue


Tel. 51 02 55 • LEITZA

ARDOTEGIA
LENTZ

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

Festa zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 51 03 33 LEITZA



**BANCO DE
VASCONIA**

*Leitzan eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa ditzaizuela*

Tel. 51 01 38 LEITZA

**Peluquería
Edurne**

JAI ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUE

C/. Elbarrén, 35
31880 LEITZA (Navarra)

MASAJE ZENTRUA
E, K, I

LEITZA

Patxi Arrazola, 36-2.º
Tfnoa: 610621

APLIKAZIOAK

- Rehabilitazioa
- Erreuma
- Artrosia
- Lumbago eta ziatika
- Giharretako tentsioak
- Stressa, erlajazioa
- Kirol masaia...

SAGASTI

TABERNA ETA JATETXEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 61 06 37 LEITZA

**IZOZTUEN ETXEA
CASA DE CONGELADOS**

MARIA ZABALETA ZABALETA

Especialidad en croquetas, pimientos rellenos y mejillones. Precocinados, mariscos y verduras.

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarrén, 80 • Tel. 610922 • 31880 LEITZA

TABERNA, ERRETEGIA
MENDIZABAL

Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 22 Tel. 61 08 90 LEITZA

KAFETEGIA • GOZOTEGIA
NEKANE

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Se recogen encargos de tartas y pasteles


Tel. 51 03 28 LEITZA

ANA ARRANDEGIA

Eguneko arraiak eta izoztuak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Urrutizkina: 61 06 81



PAGOZELAY GOIZABAL, S.L.

CONSTRUCCIONES - OBRAS PUBLICAS

Patxi Arrazola, 41 - 1.º izqda.

31880 LEIZA (Navarra)

**Ileapaindegia
Arantxa**

JAI ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUE

Obispo Huarte, 8 - Tfno. 61 09 31
31880 LEITZA (Navarra)



**MUSUN ZAR
OSTATVA**

-JATETXEA; -GOSARIAK;
-OGITARTEKOAK;
-LOGELAK

Elbarren Kalea, 14
Tel. (948) 510607
510475
LEITZA-Nafarroa

Jai zoriontsuak opa dizkizue

M.^a JESUS BARAIBAR ASTIBIA

FESTA ONAK PASA ITZAZUE

Obispo Huarte, 8 bajos
31880 LEITZA (Navarra)
Teléfono (948) 61 09 19

**GRUPO
VITALICIO
SEGUROS**



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

ECOLAN

INGURUGIRO GAIEN IKERKETA ETA KUDEAKETA